

Compilación del Derecho Civil Foral o Fuero Nuevo de Navarra

LEY 1/1973, DE 1 DE MARZO

BOE, nº 57, de 7 de marzo

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

Con esta Compilación del Derecho civil foral de Navarra culmina la Recopilación de los Derechos forales de España, laboriosamente realizada a lo largo de los últimos veinticinco años.

Ya en 1946, superados los prejuicios que impedían el reconocimiento expreso de un hecho histórico tan notorio y natural como es el de la variedad de unos derechos regionales armoniosamente integrados dentro de una perfecta unidad política nacional, se quiso dar un decidido impulso oficial, en el Congreso de Derecho Civil celebrado en Zaragoza, para la Normalización legal de la pluralidad jurídica de nuestra Patria.

Seguidamente, por Decreto de 23 de mayo de 1947, se ordenó la constitución de las distintas comisiones de juristas locales que habían de redactar los proyectos de las respectivas compilaciones.

Dentro de este planteamiento de la codificación foral se advertía la singularidad del régimen jurídico de Navarra, y por eso la Orden de 10 de febrero de 1948 atribuyó a la Diputación Foral el nombramiento de la correspondiente Comisión, de la que había de ser Presidente el de la Audiencia Territorial de Pamplona.

Esta diferencia respecto a las otras regiones forales no era más que una estricta consecuencia de Ley Paccionada, de 16 de agosto de 1841.

De conformidad con esta Ley, se exigía el procedimiento de convenio para introducir reformas legislativas en Navarra.

Promulgadas de 1959 a 1977 las Compilaciones de Vizcaya y Álava, Cataluña, Baleares, Galicia y Aragón, quedaba como última ésta de Navarra.

Ya en 1959, un Proyecto de Fuero Recopilado sirvió como primera base para un renovado estudio por los juristas de esa región foral.

La labor no interrumpida dio como resultado, en 1971, la redacción, con carácter privado, de una «Recopilación» o «Fuero Nuevo de Navarra», que la Comisión Oficial Compiladora designada por la Diputación Foral, por acuerdo de 30 de junio de 1971, elevó a la consideración de Anteproyecto, y la excelentísima Diputación Foral mandó publicar en su «Boletín Oficial» de 4 de agosto, a la vez que abrió un plazo de información hasta el 15 de octubre del mismo año.

Foru Zuzenbide Zibilari buruzko Konpilazioa edo Nafarroako Foru Berria

1/1973 Legea, martxoaren 1ekoa

EAO, 57.zk., martxoaren 7koa

ZIOEN AZALPENA

Nafarroako foru zuzenbide zibilari buruzko konpilazio honekin buru ematen zaio Espainiako foru zuzenbideen bildumari. Azken hogeita bost urteetan zehar gogor lan egin ondoren erdietsi da bilduma hori.

Egitate historiko nabari eta berezkoa zen, izan ere, nazioaren batasun politikora modu harmonikoan bilduriko erregio zuzenbideen aniztasuna; egitate hori esanbidez aitor zedin eragozteko aurreiritziak bazter utzita, 1946. urtean, Zaragozan zuzenbide zibilari buruzko kongresua egin zen. Kongresu horretan, bultzakada ofiziala eman nahi izan zitzaion Espainiako aniztasun juridikoaren normalizazioari.

Horren ondotik, 1947ko maiatzaren 23ko Dekretuaren bidez, tokian tokiko juristen batzorde desberdinak eratzeko agindu zen, horiek konpilazioei buruzko proiektuak idatz zitzaizkien.

Foruen kodeketa egiteko asmoarekin, Nafarroako araubidearen berezitasuna antzeman zen; horren ondorioz, 1948ko otsailaren 10eko Aginduak Foru Diputazioari eratziki zion batzorde eskuduna izendatzeko ardura; horren lehendakaria Iruñeko Lurralde Entzutegiaren lehendakaria izan behar zen.

Gainerako foru erregioei begira, beraz, desberdintasun hori gertatu zen. Desberdintasuna, egia esateko, 1841eko abuztuaren 16ko Lege Itunduaren zuzeneko ondorioa baino ez zen.

Lege horrekin bat etorritik, Nafarroan itun-prozedura bete behar zen legeak aldatzeko.

1959tik 1977rako urteetan, Bizkaia eta Araba, Katalunia, Balearretako, Galizia eta Aragoiko konpilazioak aldarrikatu ziren; horien ondotik, Nafarroakoa baino ez zen geratzen.

1959an, Foru Bildumaren Proiektuak lehen urratsa eman zuen foru erregio horretako juristek ikerketa berriztatua egin zezaten.

Lanari buru-belarri ekin ondoren, azkenik, 1971n, izaera pribatuarekin, «Bilduma» edo «Nafarroako Foru Berria» idatzi zen. Foru Diputazioak Batzorde Ofiziala izendatu zuen konpilazioa egiteko, eta horrek, 1971ko ekainaren 30eko erabakiaren bidez, Aurreproiektuaren izaera eman zion bildumari. Foru Diputazio txit Garaiak, bestalde, abuztuaren 4ko «Aldizkari Ofizialean» aurreproiektua argitaratzeko agindu zuen; aldi berean, informazio- epea ireki zuen, urte bereko urriaren 15a arte.

© Nafarroako Foru Berriaren itzulpena eta lan honetako aurkibide analitiko guztiak:

Begoña Landa, Gotzon Lobera, Andres Urrutia, Esther Urrutia,

Nafarroako Parlamentuko itzultzaileak eta Nafarroako Gobernuko Itzulpen Ataleko zenbait itzultzaile, eta IVAP/HAEEko Itzultzaile Zerbitzu Ofiziala

© Deustuko Unibertsitatea. Euskal Gaien Institutua

© IVAP/HAEEko Itzultzaile Zerbitzu Ofiziala

Las enmiendas presentadas fueron tan sólo catorce y a muy escaso número de Leyes, con lo que se ha reconocido la adecuación de dicha redacción con el derecho realmente vivido en Navarra.

Para dar el debido cauce a la aprobación del Anteproyecto, en armonía con el régimen paccionado de Navarra, las Órdenes de 24 de noviembre y 6 de diciembre de 1971 designaron los componentes de una Sección especial de la Comisión General de Codificación que debían estudiar aquel texto y dictaminar sobre su aceptación como objeto del correspondiente convenio.

Durante un año, ambas Comisiones, la Especial de Códigos y la Compiladora de Navarra, han venido trabajando en estrecha relación para fijar el texto refundido del proyecto de 596 leyes, en el que pueden observarse algunas correcciones y ciertas mejoras respecto al anteproyecto de 616 leyes.

Debe advertirse a este propósito que el uso de la palabra «ley» para designar las disposiciones de la presente Compilación obedece a un criterio de fidelidad a la tradición legislativa de Navarra.

Al texto del anteproyecto se añadieron cinco disposiciones transitorias y dos disposiciones finales.

En aquéllas se regulan las situaciones y relaciones causadas con anterioridad a la promulgación de esta Compilación, y en las disposiciones finales se prevé el procedimiento para futuras modificaciones legales, conforme al sistema de la Ley paccionada, y se da carácter estable a la Comisión Compiladora para la regular información y eventual alteración del derecho recopilado.

Se presenta esta Compilación como un fiel reflejo del derecho civil realmente vigente en Navarra, y no como un simple registro de unas pocas particularidades jurídicas, por lo que, dentro de la continuidad histórica del derecho navarro, recibe justamente la denominación de «Fuero Nuevo de Navarra».

Al mismo tiempo que ha prescindido, por falta de uso, de muchas instituciones legales de Navarra, o provenientes del derecho romano, que en ella vale como supletorio, ha sabido incorporar otras consuetudinarias y de la práctica cotidiana que ofrecen soluciones jurídicas de gran actualidad, siempre debidamente elaboradas por una doctrina rigurosa y congruentemente armonizadas con el sistema general propio del derecho de Navarra.

Y no deja de ser significativo que precisamente una región que ha sentido y defendido la unidad política

Aurreproiektuari hamalau zuzenketa bakarrik egin zitzaizkion, eta horiek lege gutxi batzuei buruzkoak izan ziren. Horrekin, beraz, argi geratu zen aurreproiektuaren idazkerak bat egin zuela Nafarroan benetan gauzaturiko zuzenbidearekin.

Nafarroako araubide itunduarekin bat etorritz, aurreproiektua behar bezala onesteko, 1971ko azaroaren 24 eta abenduaren 6ko aginduen bidez, Kodegintzarako Batzorde Orokorren atal bereziaren kideak izendatu ziren, eta kideok, testua aztertu ondoren, erabaki behar zuten hori itunaren objektu gisa onesteko modukoa zen ala ez.

Urtebetean zehar, bi batzordeak, kodeak egiteko batzorde berezia eta Nafarroako konpilazioa egitekoa, elkarlanean aritu ziren, 596 legez osaturiko proiektuaren testu bategina finkatzeko; testu horretan, zuzenketa ez ezik, 616 legedun aurreproiektuari begira hobekuntzak ere nabari daitezke.

Horren inguruan, argitu behar da konpilazio honetako xedapenei «lege» deitzeak agerian jartzen duela Nafarroako lege-tradizioari eutsi nahi izana.

Aurreproiektuaren testuari erantsi zitzaizkion bost xedapen iragankor eta, horiez gain, beste bi xedapen, azken xedapen deitzen diren horietakoak.

Lehenengoetan, konpilazio hau aldarrikatu aurretik sorturiko egoera eta harremanak arautzen dira, eta, azken xedapenetan, aldiz, Lege Itunduarekin bat eginez etorkizunean izan daitezkeen lege-aldaketak gauzatzeko prozesua; azken horietan ere, Batzorde Konpilaziogileari egonkortasuna ematen zaio, bildutako zuzenbideari buruzko informazioa aldzika jasotzeko eta horri, behar izanez gero, aldaketak egiteko.

Konpilazio honetan aurki daiteke Nafarroan benetan indarrean dagoen zuzenbide zibilaren erakusgarri argia, ez, ordea, berezitasun juridiko gutxi batzuen zerrendaketa hutsa. Ondorenez, Nafarroako zuzenbidearen ibilbide historikoaren harira, konpilazio honi «Nafarroako Foru Berria» deritzo.

Foru honek alde batera utzi ditu Nafarroako legezko erakunde asko, bai eta Nafarroan osagarria den zuzenbide erromatarretik datozen beste erakunde batzuk ere, horiek erabiltzen ez direlako. Baina, aldi berean, Foruak bere barruan hartu ditu ohiturazko erakundeak eta eguneroko eginerok sorrarazitakoak, horiek guztiek gaurkotasan handiko irtenbide juridikoak ematen dituztelako; erakundeok doktrina zorrotzaren agindupean landu eta zentzuz harmonizatu izan dira Nafarroako zuzenbidearen sistema orokorrarekin.

Adierazgarria da, izatez, Espainiaren batasun politikoa bultzatu eta defendatu duen erregioak bere

de España haya sabido presentar sin timideces una formulación de su propio derecho civil, afirmando con ello la vitalidad de todos los ordenamientos forales como vía para un concertado progreso del derecho de nuestra Patria.

Si la extensión no resulta excesiva, pese a la amplitud de la concepción, ello se debe a que se ha renunciado deliberadamente a enunciados que son más propios de la doctrina que de la ley y a determinadas casuísticas que deberán ser explicitadas por la doctrina de los comentaristas y de los Jueces.

Se divide esta Compilación en tres libros, precedidos por otro preliminar.

Trata el libro primero de las personas y de la familia, asociando así lo que es esencial para la tradicional concepción navarra, según la cual la estructura y la legitimidad familiar, así como la unidad de la casa, son el fundamento mismo de la personalidad y de todo el orden social.

Tras un primer título sobre las personas jurídicas, en el que se hace constar aquellas instituciones navarras que tradicionalmente la tienen reconocida, versa el segundo sobre una realidad desatendida por la legislación, pero de insoslayable vigencia, cual es los sujetos colectivos sin personalidad jurídica.

Los títulos III y IV regulan la capacidad general de las personas individuales y la de los cónyuges, fijando en especial aquellos actos que la mujer puede realizar sin la licencia marital (ley 57).

El título V fija con realismo el concepto de la patria potestad, muy diverso ya del romano, y la posición de los hijos legítimos y naturales.

A continuación (título VI), se trata de la adopción y el prohijamiento, instituciones de gran actualidad en Navarra, y se regula con la amplitud que el Derecho navarro permite el pacto sucesorio entre adoptante y adoptado.

Se pasa en los títulos siguientes a los principios fundamentales del régimen de bienes en la familia (VII), por el que se regula la donación y los contratos entre cónyuges; luego, a las capitulaciones matrimoniales (VIII), que en Derecho navarro pueden ser modificadas en cualquier momento; al régimen de bienes en el matrimonio (IX), en especial al supletorio de «conquistas» (capítulo I), que puede existir como sociedad familiar (capítulo II), y a la Comunidad universal (capítulo III), así como al régimen de separación de bienes (capítulo IV).

Especial importancia tiene para el Derecho navarro el régimen de bienes en segundas o posteriores nupcias (título X), dada la enérgica defensa que

zuzenbide zibilaren formulazio berezia egitea, horrekin agerian jartzen baita foru antolamendu guztiek eragin handia izan dezaketela Espainiako zuzenbidearen aurrerapen bateratua lortzeko bidean.

Asmoa oso zabala izan arren, bildumaren hedadura ez da gehiegizkoa. Nahita uko egin zaie legearekin baino doktrinarekin zerikusia duten adierazpenei, bai eta kasu zehatzei ere, horiek zehaztu behar baitira iruzkingile eta epaileek emandako doktrinaren arabera.

Konpilazio hau hiru liburutan zatiturik dago, horien atarian beste liburu bat ere izanik.

Lehenengo liburuan, pertsonak eta familia arautzen dira. Horrekin, Nafarroan betidanik izan den ulerkeraren oinarria antzematen da; horren arabera, familiaren egitura eta lege-oinarria, bai eta etxearen batasuna ere, nortasunaren eta gizarte antolamenduaren euskarri dira.

Lehenengo titulua pertsona juridikoei buruzkoa da; horretan agerrarazten diren erakunde nafarrei tradizioz aitortu zaie nortasuna. Bigarren titulua bildutakoa egun indarrean dagoen errealitatea da, hain zuzen ere, legeriak orain arte baztertuta izan duena, nortasun juridikorik gabeko subjektu kolektiboek buruzkoa.

III eta IV. tituluek norbanakoen eta ezkontideen gaitasun orokorra arautzen dute; horietan, bereziki finkatzen dira emakumeak senarraren baimenik gabe gauza ditzakeen egintzak (57. legea).

V. tituluak errealismoz finkatzen du, guraso-aharri buruzko kontzeptua, zuzenbide erromatarrak araututakoarekin desberdintasun ugari dituen, bai eta legebidezko eta odoleko seme-alaben egoera ere.

Horren ondoren (VI. titulan), adopzioa eta umeordetzea arautzen dira; erakundeok Nafarroan egun indar handia dute, eta horiek zabal arautu dira, Nafarroako zuzenbideak zabal arautu eta onartzen baititu, orobat, adopzio-hartzaile eta adoptatuaren arteko oinordetza-itunak.

Hurrengo tituluetan, familiako ondasun- eraentzari buruz, oinarrizko printzipioak aipatzen dira (VII), ezkontideen arteko dohaintza eta kontratuak arautuz. Horren ondotik, ezkontzako itunak jorratzen dira (VIII); horiek, Nafarroako zuzenbidean, edonoiz aldaraz daitezke. Ondoren, ezkontzako ondasun- eraentza (IX) arautu da; bereziki «konkistak» izeneko eraentza, osagarria dena (I. kapitulua) eta familia-sozietate izan daitekeena (II. kapitulua), eta erkidego unibertsala (III. kapitulua), eta ondasunen banantze- eraentza ere (IV. kapitulua).

Nafarroako zuzenbidean, garrantzi berezia du bigarren edo gehiagogarrenez ezkontutako ondasun-eraentzak (X. titulua), zuzenbide horrek

establece aquel Derecho a favor de los hijos de anteriores nupcias, verdadera limitación de la libertad de disponer reconocida como principio fundamental del Derecho sucesorio.

En el título XI se trata de las donaciones propter nupcias, y en el XII, de la dote y de las arras.

Finalmente, el título XIII versa sobre la disolución de las comunidades familiares; el XIV, sobre el régimen típicamente navarro del acogimiento a la Casa y de las dotaciones, y el XV, de la institución de los Parientes mayores a cuya intervención se hace referencia más concreta en otras muchas leyes de la presente Compilación.

En el libro II se asocian las donaciones y las sucesiones, asociación indiscutible para el Derecho navarro, el cual presenta una riquísima gama de formas y modalidades de liberalidad, desde la donación íter vivos al más solemne testamento unilateral, pasando por las capitulaciones matrimoniales, pactos sucesorios, testamentos de hermandad, etcétera, sin que pueda apreciarse solución de continuidad.

El título I, de principios fundamentales, ofrece uno de los cuadros más vivos del Derecho navarro, con la libertad de testar, la consideración como heredero del donatario universal, la fiducia sucesoria, el poder otorgado post mortem, la renuncia a la herencia futura, etc.

Luego, en el título II, se trata de las donaciones íter vivos y el problema de su revocabilidad; en el III, de las donaciones mortis causa; en el IV, de los pactos o contratos sucesorios, ins titución especialmente elaborada por los juristas de Navarra; en el V, sobre el testamento y sus diversas formas, incluyendo los codicilos (capítulo III), las memorias testamentarias (capítulo IV) y, en especial, el muy frecuente en Navarra testamento de hermandad (capítulo V), que los navarros pueden otorgar incluso en el extranjero.

De la nulidad e ineficacia de las disposiciones mortis causa trata el título VI, y en los VII y VIII, respectivamente, de la institución de heredero y de las sustituciones vulgar (capítulo II), fideicomisaria (capítulo III), una de cuyas modalidades es la «sustitución pupilar », tal como se practica en Navarra (ley 227) y la de residuo (capítulo IV).

De los legados, a los que se asimilan los fideicomisos a título particular del derecho romano, trata el título IX, y en el X se formulan los límites a la libertad de testar navarra; a saber: el usufructo de fidelidad (capítulo I), institución sucesoria, en Navarra, y no del régimen de bienes en el matrimonio, por lo que se determina por la ley personal del causante al tiempo de su muerte; tiene

defentsa gogorra ezartzen baitu aurreko ezkontzako seme-alaben mesederako, oinordetza zuzenbidearen oinarrizko printzipio den xedatze-askatasuna mugatuz.

XI. tituluan propter nupcias dohaintzak arautu dira, eta, XII.ean, ezkonsaria eta erresak.

Azkenik, XIII. titulua familia-erkidegoak desegiteari buruz ari da; XIV. titulua, Nafarroan ohikoa den etxeharrerari eta zuzkidura izenekoei buruz; eta XV. titulua, Ahaide Nagusien erakundeari buruz. Ahaideon esku-hartzea zehatzago aipatzen da konpilazio honetako beste lege askotan.

II. liburuan dohaintzak eta oinordetzak elkarrekin lotzen dira. Lotura hori ezbairik gabekoa da, Nafarroako zuzenbidearen ikusmiratik. Horretan, eskuzabaltasunari dagokionez, orotariko forma eta aldaerak agertzen dira, direla inter vivos dohaintzak, direla alde bakarreko testamenturik solemneena, ezkontzako itunak, oinordetza-itunak, ermandadeko testamentuak eta abarrekoak barne, horien arteko lotura inondik inora hautsi gabe.

I. tituluak, oinarrizko printzipioei buruzkoak, Nafarroako zuzenbidean indarrik handiena duten erakundeak aipatzen ditu; kasurako, testamentua egiteko askatasuna, dohaintza- hartzaile unibertsalara jarrauntsletzat hartzea, oinordetza-fiduzia, post mortem emandako ahalordea, etorkizuneko jarrauntsiari uko egitea etab.

Jarraian, II. tituluan, inter vivos dohaintzak aztertzen dira, bai eta horiek ezeztatzeari buruzko arazoa ere; III. tituluan, mortis causa dohaintzak; IV. tituluan, oinordetza- itun edo —kontratuak, halakoak Nafarroako juristek bereziki prestatuturiko erakundeak baitira; V. Tituluan, testamentua eta horrek dituen formak, horien artean kodiziloak (III. kapitulua), testamentuko memoriak (IV. kapitulua) eta, batik bat, Nafarroan ohikoa den ermandadeko testamentua (V. kapitulua) aipatuz, nafarrek halakoa atzerrian ere egin baitezakete.

Mortis causa xedapenen deuseztasun eta eragingabetasunaren inguruan, VI. titulua ari da, eta VII eta VIII. tituluak, hurrenez hurren, euren barruan hartzen dituzte jarraunle-izendapena, ordezen arrunta (II. kapitulua) eta fideikomisozko ordezena (III. kapitulua); horren aldaera bat «zurtz ordezena» da (IV. kapitulua), Nafarroan egin ohi den moduan (227. legea), eta hondakinaren gaineko ordezena (IV. kapitulua).

Zuzenbide erromatarrean, banakako tituluaren bidezko fideikomisoak arautu ziren, eta horiekin berdinetsitako legatuei buruzkoa da IX. titulua. X. tituluan, nafarrek testamentua egiteko duten askatasunaren mugak ezartzen dira, besteak beste fideltasun-gozamena (I. kapitulua). Nafarroan, gozamen hori oinordetzako erakundea da, ez, ordea, ezkontzako ondasun-eraentzarena; ondorenez, hori

© Nafarroako Foru Berriaren itzulpena eta lan honetako aurkibide analitiko guztiak:

4

Begoña Landa, Gotzon Lobera, Andres Urrutia, Esther Urrutia,

Nafarroako Parlamentuko itzultzaileak eta Nafarroako Gobernuko Itzulpen Ataleko zenbait itzultzaile, eta IVAP/HAEEko Itzultzaile Zerbitzu Ofiziala

© Deustuko Unibertsitatea. Euskal Gaien Institutua

© IVAP/HAEEko Itzultzaile Zerbitzu Ofiziala

tal vigencia esta institución en Navarra que puede considerarse como modelo principal para cualquier otro tipo de usufructo.

Luego, la legítima formal de los descendientes (capítulo II), que supone en realidad una imposición de no-preterición por parte del disponente, pues carece de contenido patrimonial exigible, razón por la que se ha estimado conveniente mantener la vieja fórmula foral de los cinco «suelos febles por bienes muebles y una robada de tierra en los montes comunes por inmuebles», que pone mejor de manifiesto el carácter meramente formal de dicha institución legitimaria, y a esta limitación hay que añadir las más importantes de los derechos de los hijos de anteriores nupcias (capítulo III), las reservas (capítulo IV) y la reversión de bienes (capítulo V).

Los títulos siguientes recogen el derecho vigente en Navarra relativo a ciertas figuras de intermediarios para la ejecución de las disposiciones mortis causa, los fiduciarios-comisarios (título XI), los herederos de confianza (título XII) y los albaceas (título XIII).

Dada la gran importancia de la voluntad en orden a la sucesión, se comprende que la tenga mucho menor la que debe llamarse en Navarra sucesión «legal», por venir determinada mediante disposición de la Ley, y no «legítima», lo que supondría una naturalidad que tal delación sucesoria no tiene en Navarra, ni tampoco «intestada», ya que no sólo puede quedar excluida por la forma testamentaria, sino también por otras modalidades de sucesión voluntaria.

Al orden de esta sucesión legal se refiere el título XIV, con especial tratamiento de la sucesión de bienes troncales (capítulo III), y no troncales (capítulo II), y constancia de la preferencia, contraria al derecho ro mano, del cónyuge respecto a los colaterales.

El derecho de representación, por el que los descendientes se subrogan en el derecho de un ascendiente que no llegó a adquirir por premoriencia o incapacidad, excede, en Navarra, el ámbito de la sucesión legal (título XV), con lo que se reduce mucho el alcance del derecho de acrecer (título XVI).

Los últimos títulos de este libro II se refieren a la adquisición y renuncia de la herencia (título XVII), a la hereditatis petitio (título XVIII), a la cesión de herencia (título XIX) y su partición (título XX).

zehaztuko da, kausatzaileari heriotza-unean dagokion lege pertsonalaren arabera. Erakunde horren indarra Nafarroan hain handia da ezen bestelako gozamenen eredu nagusizat har baitaiteke.

Horren ondotik dator ondorengo seniparte formal (II. kapitulua). Erakunde hori dela bide, xedatzaileak ezin izanen ditu ondorengoak preteritu; erakunde horrek ez du galdatzeko moduko ondare- edukirik, eta, horren ondorioz, egokitatz hartu da antzinako foru formula honi eustea: «ondasun higigarri dagokienez, bost alokairu feble, eta, ondasun higiezinei dagokienez, herri- -mendietako erregu bat lur». Horrekin, agerian geratu da senipartearen erakundeak duen izaera formal. Mugapen horri gehitu behar zaizkio garrantzitsuagoak diren beste batzuk; hain zuzen ere, aurreko ezkontzako seme-alaben eskubideak (III. kapitulua), erreserbak (IV. kapitulua) eta ondasunen lehengoratztea.

Horren ondorengo tituluek euren barruan hartzen dute mortis causa xedapenak betearazteko bitartekariei buruz Nafarroan indarrean dagoen zuzenbidea: fiduziario-komisarioak (XI. titulua), konfiantzazko jaraunseak (XII. titulua) eta albazeak (XIII. titulua).

Oinordetzaren ondoretarako, jakina denez, borondateak garrantzi handia du. Garrantzi hori kontuan hartuta, bistakoa da Nafarroan «legezko» oinordetza izenekoaren garrantziak txikiagoa izan behar duela, hori legegaren aginduz zehazten delako. Zernahi gisaz, legezko oinordetza ez da «legitimoa»; hala izanen balitz, oinordetza berezkoa izanen litzateke, baina oinordetzarako delazioak ez du halako izaerarik Nafarroan. Era berean, legezko oinordetza ez da «testamenturik gabekoa»; izan ere, legezko oinordetza hori bazter daiteke, testamentuaren bidez ez ezik, borondatezko oinordetza gauzatzeko beste aldaera batzuen bitartez ere.

Legezko oinordetzari buruz ari da XIV. titulua; horretan, bereziki arautu da ondasun tronkalen gaineko oinordetza (III. kapitulua) eta ondasun ez-tronkalen gainekoa (II. kapitulua). Eta, zuzenbide erromatarren aurka, ezkontideari lehenespena eman zaio, alboko ahaideen aurretik.

Ordezkapen-eskubidea dela medio, ondorengoak aurreko baten eskubidean subrogatzen dira, azken horrek oinordetza eskuratu ez duenean, aurrez hiltzeagatik edo ezgaitasunaren ondorioz. Nafarroan, eskubide horrek legezko oinordetzaren eremua gaintzen du (XV. titulua), eta, horrekin, gehiagotze-eskubidearen norainkoka arras urritzen da.

II. liburuko azken tituluek honako gai hauek jorratzen dituzte: jarauntsia eskuratu eta horri uko egitea (XVII. titulua), hereditatis petitio izeneko (XVIII. titulua), jarauntsia lagatzea (XIX. titulua) eta horren banaketa (XX. titulua).

El libro III es el más amplio, porque abarca toda la materia de los derechos reales (títulos I-VII) y las obligaciones (títulos VIII-XI).

En cuanto a la propiedad y posesión de los bienes (título I), es interesante destacar el régimen singular de adquisición de los frutos de las heredades desde que son manifiestas (ley 354), y en el título II, De las comunidades de bienes y derechos, se expone con claridad el régimen de modalidades especiales, muy frecuentes, pero que no siempre se interpretan convenientemente, como son las corralizas (capítulo IV), facerías, helechales, el dominio concellar y las vecindades foranas (capítulo V); la errónea configuración, que a veces se ha insinuado en la jurisprudencia, de tales derechos como servidumbres «personales» desfiguraba su propia naturaleza impidiendo la redención.

Conforme a la más depurada doctrina, se consideran como servidumbres (título III) tan sólo las prediales, de las que se recogen algunas particularidades siempre vigentes en Navarra, y como derechos reales especiales los de usufructo, habitación, uso y otros similares (título IV).

De gran utilidad resulta la regulación del derecho de superficie y otros similares (título V), que han cobrado renovada aplicación en el desarrollo urbano, y la Compilación presenta una ordenación nueva, fiel reflejo de la práctica vigente en materia de sobreedificación y subedificación (capítulo III).

El título VI ordena todo lo relativo al derecho de retracto y otros derechos de adquisición preferente, que presenta una mayor complejidad por la incidencia de tipos especiales de derechos concurrentes.

Finalmente, a las garantías reales se dedica el título VII, incluyendo la venta con pacto de retro en función de garantía (capítulo IV), las prohibiciones de disponer (capítulo V), la venta con reserva de dominio (capítulo VI) y la venta con pacto comisario (capítulo VII).

La sistemática de las obligaciones —cuyos principios generales se recogen en el título VII del tercer libro— distingue, en primer lugar, las promesas unilaterales, designadas con el nombre romano de estipulaciones (título IX), a las que se agrega el acto similar de la fianza (capítulo II) en segundo lugar, los distintos tipos de préstamos (título X) —a los que sigue el censo consignativo (título XI)—, y en tercero, los contratos de custodia (título XII), de mandato (título XIII), de compraventa y permuta (título XIV) y de arrendamiento (título XV y último de la Compilación).

III. liburua luzeena da, eskubide erreal (I-VII, tituluak) eta betebeharrei (VIII-XI, tituluak) buruzko kontu guztiak arautzen baititu.

Ondasunen gaineko jabetza eta edukitzari dagokionez (I. titulua), azpimarratzekoa da landetatik fruituak eskuratzeko araubide berezia, horiek agerikoak direnetik (354. legea). II. tituluak, ondasun eta eskubideen erkidegoak arautzen dira; arauketa horretan, argiro-argiro azaltzen da aldaera berezien araubidea. Nafarroan, sarritan sortzen dira halako erkidegoak, eta horien gaineko interpretazioak ez dira beti modu egokian egiten. Erkidego horien artean ditugu, besteak beste, bazkalekuak (IV. kapitulua), fazeriak, iralekuak, kontzeju-jabaria eta kanpoko auzotartasunak (V. kapitulua). Horiei buruz, jurisprudentziak okerreko moduan adierazi du eskubideok zortasun «pertsonalak» direla; horrek erakundeon izaera desitxuratu du, horien askatzea eragotziz.

Doktrinarik garbienarekin bat etorritik, zortasun dira (III. titulua) lurraren gainekoak bakarrik, eta horiei buruz zenbait berezitasun jaso dira, Nafarroan betidanik indarrean egon direlako. Eskubide erreal berezien artean, gozamina, biztantzea, erabilteza eta horien antzekoak aipatzekoak dira (IV. titulua).

Azalera-eskubidearen eta antzeko beste eskubide batzuen arauketa (V. titulua) oso erabilgarria da, hiriaren garapenarekin eskubideok berriro aplikatu izan baitira. Eta Konpilazioak antolaketa berria ematen du, inoren eraikinaren gainean edo azpian eraikitzeari buruzko kontuetan, egunean-egunean gauzaturiko eginaren adierazgarri gisa (III. kapitulua).

IV. tituluak, atzera-eskuratzeko eskubideari eta lehenespenez eskuratzeko beste eskubideei buruzko kontuak barneratu dira. Horietan, konplexutasuna areagotzen da, mota bereziak agertzen baitira elkarrekin pilaturiko eskubideen artean.

Azkenik, VII. titulua berme errealez arduratzen da. Horren barruan jaso dira, besteak beste, berme gisa eta atzera-eskuratzeko itunarekin egindako salmenta (IV. kapitulua), xedatzeko debekua (V. kapitulua), jabari-erreserbarekin egindako salmenta (VI. kapitulua) eta komiso-itunarekin egindako salmenta (VII. kapitulua).

Betebeharren gaineko sistematikak —betebeharren printzipio orokorrak hirugarren liburuko VII. titulua biltzen dira— bereizten ditu, lehenik eta behin, alde bakarreko hitzemeak; horiei zuzenbide erromatarretik datorren hizpaketa izena eman zaie (IX. titulua). Bigarrenik, horiei gehitzen zaizkie, batetik, antzekoa den egintza, fidantza hain zuzen (II. kapitulua), eta, bestetik, mailegu motak ere (X. titulua) —horien ondoren, zainpeketa-zentsuari buruzko arauketa ematen da (XI. titulua)—. Eta, hirugarrenik, zaintza (XII. titulua), mandatu (XIII. titulua), salerosketa eta trukaketa (XIV. titulua) eta

Así pues, se prescinde de la categoría del «cuasi-contrato» y, en su lugar, se trata del enriquecimiento sin causa (capítulo IV) en el título general (VII) sobre las obligaciones, y de la gestión de negocios como figura similar al mandato (leyes 560 y 561 del título XIII).

Debe señalarse también la eliminación de la superada figura del arrendamiento de servicios, que, en la medida en que no queda regulada como contrato de trabajo, se somete a las reglas del mandato (ley 562), orillándose así una ya ociosa discusión de los autores, que hace tiempo debiera haber sido olvidada.

La orgánica estructura de estos tres libros queda coronada por el Libro preliminar que los precede.

Sus cuarenta y una leyes se distribuyen en cuatro títulos, respectivamente, sobre las fuentes (título I), la condición foral de las personas físicas y jurídicas (título II), el ejercicio de los derechos (título III) y la prescripción de las acciones (título IV).

Una mención especial merece el reconocimiento de la costumbre como primera fuente (ley 2), incluso cuando se oponga al Derecho escrito, siempre que no sea contra la moral o el orden público (ley 3).

Aunque con este reconocimiento parezca debilitarse la fuerza de la misma Compilación, ello se debe a una indeclinable exigencia del Derecho privativo de Navarra, que se muestra así como un ordenamiento abierto al desarrollo futuro determinado por la práctica.

Ello no obsta, sin embargo, a que el Derecho supletorio particular de Navarra quede siempre integrado por su tradición jurídica, constituida por sus antiguas Leyes y el derecho romano, en aquellas instituciones que de él se han recibido en la práctica de nuestro tiempo, tradición a la que suple, en su caso, el Código Civil y las Leyes generales de España (ley 6).

Hay que tener en cuenta, por lo demás, que las mismas leyes de esta Compilación, como todas las Leyes vigentes en Navarra, tienen normalmente carácter dispositivo (ley 8), ya que el primer principio y fundamento de todo el Derecho navarro es la primacía de la voluntad privada, como se expresa en la antigua regla «paramiento fuero vienze» (ley 7).

Aunque la codificación no debe considerarse nunca como un término final, sino como un proceso para el desarrollo del Derecho, con la presente Compilación viene a cumplirse el propósito de aclarar y renovar con una más depurada expresión el Derecho de Navarra, ya que, examinado cuidadosamente el texto del proyecto los juristas designados al efecto, tras

errentamenduari buruzko kontratuak (XV. titulua, hori Konpilazioaren azken titulua izanik) arautzen dira.

Horrela, bada, «kuasikontratu» kategorian alde batera utzi da; horren ordez, arrazoirik gabe aberastea (IV. kapitulua) betebeharrei buruzko titulu orokorrean arautu da (VII), eta negozioen kudeaketa, aldiz, mandatuaren antzeko erakunde gisa (XIII. tituluko 560 eta 561. legeak).

Tankera berean, aipatzeko modukoa da zerbitzu-errentamendua desagerrarazi egin dela; errentamendu hori lan-kontratu gisa arautzen ez den neurrian, mandatuari buruzko erregelen menpe geratuko da (562. legea); horrekin, autoreen artean alferreko suertatu den eztabaida ezerezean geratu da, aspaldidanik ahazturik egon beharko litzatekeen eztabaida baita hori.

Hiru liburu horien egitura organikoaren aitzinean, atariko titulua agertzen da.

Horren berrogeita bat legeak lau titulutan banatzen dira; hurrenez hurren, iturriak (I. titulua), pertsona fisiko eta juridikoen forudun-izaera (II. titulua), eskubideen egikaritzea (III. titulua) eta akzioen preskripzioa (IV. titulua).

Aipamen berezia egin behar da ohiturari buruz, hori lehendabiziko iturritzat hartzen baita (2. legea), zuzenbidearen aurkakoa izan arren, baldin eta morala edo ordena publikoa urratzen ez badu (3. legea).

Itxuraz, aitorpen horren eraginez, Konpilazioaren beraren indarra ahuldu egiten da. Hala ere, Nafarroako berezko zuzenbideak ezartzen du hori hala izateko beharra, eta horrek agerian jartzen du Nafarroako antolamendua, etorkizunean, praktikak agindutako moduan garatuko dela.

Horrek ez dakar inolako oztoporik, alabaina, Nafarroako zuzenbide osagarri berezia bertako tradizio juridikoarekin integratzeko; tradizio horretara biltzen dira Nafarroako antzinako legeak eta zuzenbide erromatarra, zuzenbide horretatik egungo praktikan hartu diren erakundeei dagokienez. Hala denean, tradizio horren osagarri dira, berebat, Espainiako Kode Zibila eta lege orokorrak (6. legea).

Gainerakoan, gogoan izan behar da orokorrean esku-emaileak direla Konpilazio honetako legeak eta Nafarroan indarrean dauden beste guztiak ere (8. legea). Borondate pribatuaren lehentasuna Nafarroako zuzenbidearen printzipio eta oinarri nagusia da, «paramiento fuero vienze» antzinako erregelari adierazten den moduan (7. legea).

Kodegintza ezin da inola ere azken jomugatzat hartu, baizik eta zuzenbidearen garapenerako prozesutzat; hala ere, Konpilazio honekin lortu nahi izan da Nafarroako zuzenbidearen edukia adierazpide garbiago batez argitu eta berriztatzea. Eta, behin horretarako izendatu diren juristek proiektuaren testua arretaz aztertu ondoren, eta zuzenketak

haber sido atendidas las enmiendas que fue objeto, puede afirmarse su correspondencia con el Derecho vigente.

LIBRO PRELIMINAR

TÍTULO PRIMERO

DE LAS FUENTES DEL DERECHO NAVARRO

Ley 1

Compilación

Esta Compilación del Derecho Privado Foral, o Fuero Nuevo de Navarra, recoge el vigente Derecho Civil del antiguo Reino, conforme a la tradición y a la observancia práctica de sus costumbres, fueros y leyes.

Tradición jurídica navarra

Como expresión del sentido histórico y de la continuidad del Derecho Privado Foral de Navarra, conservan rango preferente para la interpretación e integración de las leyes de la Compilación, y por este orden: las leyes de Cortes posteriores a la Novísima Recopilación; la Novísima Recopilación; los Amejoramientos del Fuero; el Fuero General de Navarra; los demás textos legales, como los fueros locales y el Fuero Reducido, y el Derecho Romano para las instituciones o preceptos que la costumbre o la presente Compilación hayan recibido del mismo.

Ley 2

Prelación de fuentes

En Navarra la prelación de fuentes de Derecho es la siguiente:

1. La costumbre.
2. Las leyes de la Presente Compilación.
3. Los principios generales del Derecho navarro.
4. El Derecho supletorio.

Ley 3

Costumbre

La costumbre que no se oponga a la moral o al orden público, aunque sea contra ley, prevalece sobre el Derecho escrito.

La costumbre local tiene preferencia respecto a la general.

La costumbre que no sea notoria deberá ser alegada y probada ante los Tribunales.

Ley 4

Principios generales

Son principios generales los de Derecho natural o histórico que informan el total ordenamiento civil navarro y los que resultan de sus disposiciones.

Ley 5

Analogía

© Nafarroako Foru Berriaren itzulpena eta lan honetako aurkibide analitiko guztiak:

Begoña Landa, Gotzon Lobera, Andres Urrutia, Esther Urrutia,

Nafarroako Parlamentuko itzultzaileak eta Nafarroako Gobernuko Itzulpen Ataleko zenbait itzultzaile, eta IVAP/HAEEko Itzultzaile Zerbitzu Ofiziala

© Deustuko Unibertsitatea. Euskal Gaien Institutua

© IVAP/HAEEko Itzultzaile Zerbitzu Ofiziala

aintzat hartu eta gero, esan daiteke horrek bat egiten duela egun indarrean dagoen zuzenbidearekin.

ATARIKO LIBURUA

I. TITULUA

NAFARROAKO ZUZENBIDEAREN ITURRIAK

1. legea

Konpilazioa

Foru Zuzenbide Pribatuari buruzko Konpilazio edo Nafarroako Foru Berri honek bere barnean hartzen du antzinako erresumaren zuzenbidetik egun indarrean dagoen zuzenbide zibila, betiere, tradizioarekin eta bertako ohitura, foru eta legeen praktikarekin bat etorritz.

Nafarroako tradizio juridikoa

Nafarroako foru zuzenbide pribatuaren esangura historikoaren eta zuzenbide horren iraupenaren adierazpen gisa, Konpilazioko legeen interpretazio eta integrazioa egiteko lehenespena dute, jarraiko hurrenkeraren arabera, honako hauek: Bilduma Berri-berriaz geroztik, Gorteetan emandako legeek; Bilduma Berri-berriak; Foruaren hobetze izene koek; Nafarroako Foru Orokorrak; gainerako legeek, besteak beste, toki foruek eta Foru Laburrak; bai eta zuzenbide erromatarrak ere, ohiturak edo konpilazio honek zuzenbide horretatik jasotako erakunde edo manuei dagokienez.

2. legea

Iturri hurrenkera

Nafarroan, zuzenbidearen iturri-hurrenkera jarraiko da:

1. Ohitura.
2. Konpilazio honetako legeak.
3. Nafarroako zuzenbidearen printzipio orokorrak.
4. Zuzenbide osagarria.

3. legea

Ohitura

Ohitura moralaren edo ordena publikoaren aurkakoa ez bada, legearen aurkakoa izan arren, lehenetsuna du zuzenbide idatziaren aurretik.

Tokiko ohiturak lehenetspena du ohitura orokorrari begira.

Ohitura nabaria ez bada, alegatu eta frogatu beharko da auzitegietan.

4. legea

Printzipio orokorrak

Printzipio orokorrak dira zuzenbide natural edo historikoak eratorri eta Nafarroako antolamendu zibil osoa eratzen dutenak, bai eta antolamendu horren xedapenetatik datozenak ere.

5. legea

Analogía

Antes de aplicarse el Derecho supletorio, deberá integrarse el Derecho privativo mediante la racional extensión analógica de sus disposiciones.

Ley 6

Derecho supletorio

El Código civil y las leyes generales de España serán Derecho supletorio de esta Compilación y de la tradición jurídica navarra expresada en la ley 1, y no se aplicarán a supuestos distintos de los expresamente previstos.

Ley 7

«Paramiento»

Conforme al principio «paramiento fuero vienze» o «paramiento ley vienze», la voluntad unilateral o contractual prevalece sobre cualquier fuente de Derecho, salvo que sea contraria a la moral o al orden público, vaya en perjuicio de tercero o se oponga a un precepto prohibitivo de esta Compilación con sanción de nulidad.

Ley 8

Libertad civil

En razón de la libertad civil, esencial en el Derecho navarro, las leyes se presumen dispositivas.

Ley 9

Renuncia de derechos

La renuncia de derechos es válida, salvo que atente al orden público o se haga en fraude de ley.

Ley 10

Estatutos

En lo no previsto en la presente Compilación, la determinación y efectos de los estatutos personal, real y formal se regirán por las disposiciones del Código Civil y conforme al principio de reciprocidad.

TÍTULO II

DE LA CONDICIÓN CIVIL FORAL DE NAVARRO

Ley 11

Reciprocidad de la condición civil

La adquisición, conservación, pérdida y recuperación de la condición foral de navarro se rige, en lo no previsto en esta Compilación, por la legislación general y conforme al principio de reciprocidad.

Ley 12

Navarros en el extranjero

Los navarros residentes en el extranjero no perderán su condición foral en tanto conserven la nacionalidad española.

Zuzenbide osagarria aplikatu baino lehen, berezko zuzenbidea integratu beharko da, berorren xedapenen hedatze analogikoa zentzuz eginez.

6. legea

Zuzenbide osagarria

Espainiako Kode Zibila eta lege orokorrak zuzenbide osagarri izanen dira, konpilazio honi eta 1. legeak adierazitako tradizio juridiko nafarrari begira, eta ez dira aplikatuko beraietan esanbidez arauturiko kasuetatik kanpo.

7. legea

«Paramiento»

«Paramiento fuero vienze» edo «paramiento ley vienze» printzipioarekin bat etorritz, alde bakarreko edo kontratuzko borondateak lehentasuna du, zuzenbidearen iturri guztien aurretik, salbu eta borondate hori moralaren edo ordena publikoaren aurkakoa denean, hirugarrenari kalte egiten dionean, edota konpilazio honetako debekuzko manuen aurkakoa izan eta manu horiek deuseztasun-zehapena dakartenean.

8. legea

Askatasun zibila

Askatasun zibila oinarritzkoa da Nafarroako zuzenbidean; askatasun horren ondorioz uste da legeak esku-emaileak direla.

9. legea

Eskubideei uko egitea

Eskubideei uko egitea baliozkoa da, salbu eta horrekin ordena publikoa hausten denean edo lege-maulaz egiten denean.

10. legea

Estatutuak

Konpilazio honek arautzen ez dituen kontuetan, Kode Zibilaren xedapenek eraenduko dituzte estatutu pertsonal, erreal eta formalaren zehaztapena eta ondoreak, betiere, elkarrekikotasun- -printzipioarekin bat etorritz.

II. TITULUA

NAFARROAKO FORUDUNAREN IZAERA ZIBILA

11. legea

Izaera zibilaren elkarrekikotasuna

Nafarroako forudunaren izaera eskuratu, horri eutsi, galdu eta berreskuratzeari dagokionez, legeria orokorrak eraenduko ditu konpilazio honek arautzen ez dituen kontuak, betiere, elkarrekikotasun-printzipioarekin bat etorritz.

12. legea

Nafarrek atzerrian

Nafarrek, bizilekua atzerrian izan arren, ez dute forudunaren izaera galtzen, Espainiako naziokotasunari eusten dioten bitartean.

Los que adquieren nacionalidad extranjera sin perder la española, conservarán también la condición foral navarra.

Los navarros que hubieren perdido la nacionalidad española, al recuperarla recobrarán también su condición foral.

Ley 13

Extranjeros nacionalizados

En el expediente de adquisición o recuperación de la nacionalidad española, se presumirá que adquiere la condición foral de navarro el extranjero que residiere en Navarra al conseguir la nacionalidad.

Ley 14

Presunción

Cuando no sea claramente determinable la condición foral de navarro, prevalecerá ésta si correspondiera por razón del lugar de nacimiento.

Ley 15

Condición foral de las personas jurídicas

La condición foral navarra de las personas jurídicas se determinará por su domicilio.

Ley 16

Efectos de la condición foral

La condición foral navarra de una persona somete a ésta al Derecho Civil y a las disposiciones administrativas y fiscales de Navarra.

Cambios de condición

Los actos celebrados por personas de condición foral no perderán su validez por quedar éstas sometidas posteriormente a otro Derecho, pero los efectos de esos actos deberán acomodarse a las exigencias del nuevo Derecho.

Asimismo, los actos celebrados por quienes con posterioridad a su otorgamiento adquieran la condición foral deberán producir sus efectos conforme al Derecho navarro, aunque éste difiera del Derecho a que se sometió su celebración.

TÍTULO III

DEL EJERCICIO DE LOS DERECHOS

Ley 17

Libertad y limitaciones

Los derechos pueden ejercitarse libremente, sin más limitaciones que las exigidas por su naturaleza, la buena fe, las rectas costumbres y el uso inocuo de otras personas, y las impuestas por prohibición expresa de la ley.

Ley 18

Nafarrek, Espainiako naziokotasuna galdu gabe, atzerrikoa eskuratzen dutenean ere, Nafarroako forudunaren izaerari eutsiko diote.

Nafarrek, Espainiako naziokotasuna galdu eta gero, hori berreskuratzen dutenean ere, forudunaren izaera berreskuratuko dute.

13. legea

Atzerritar naziokotuak

Espainiako naziokotasuna eskuratzeko edo berreskuratzeke espedientean, uste izanen da atzerritarrak, Nafarroan bizilekua badu, Nafarroako forudunaren izaera eskuratzen duela, Espainiako naziokotasuna lortzean.

14. legea

Presuntzioa

Nafarroako forudunaren izaera ezin denean argio zehaztu, horrek lehentasuna izanen du, jaiolekuaren ondorioz hari hala badagokio.

15. legea

Pertsona juridikoak Nafarroako forudunak izatea

Egoitzak zehaztuko du pertsona juridikoak Nafarroako forudun izatea.

16. legea

Forudun-izaeraren ondoreak

Norbaitek Nafarroako forudunaren izaera baldin badu, pertsona hori Nafarroako zuzenbide zibilaren menpe eta bertako administrazio- nahiz zerga-xedapenen menpe geratuko da.

Izaera-aldaketak

Norbaitzuk forudunak badira, eta zenbait egintza burutzen badituzte, egintza horiek ez dute baliozkotasunik galduko, gero pertsona horiek beste zuzenbide baten menpe geratu arren; baina egintzon ondoreak beste zuzenbide horren eskakizunei egokitu beharko zaizkie.

Era berean, egintzak gauzatu eta gero, horien egileek forudunaren izaera eskuratzen badute, orduan, egintzok ondoreak sortuko dituzte Nafarroako zuzenbidearekin bat etorritik, nahiz eta egintza gauzatzeko bete den zuzenbidea Nafarroakoaz bestelakoa izan.

III. TITULUA

ESKUBIDEAK EGIKARITZEA

17. legea

Askatasuna eta mugapenak

Eskubideak askatasunez egikari daitezke, eta egikaritzea horren mugapen bakarrak dira eskubidearen izaerak, onustekak, ohitura zuzenek eta beste pertsona batzuen kalterik gabeko erabilerak dakartzatenak, eta legetan esanbidezko debekuen bidez ezarritakoak.

18. legea

Perfección formal

La declaración de voluntad, expresada en cualquier forma, es válida y legítima para el ejercicio de los derechos que de la misma se deriven.

No obstante, los actos o contratos para los que la ley no exija una forma determinada, pero ésta se hubiese convenido expresamente, no se considerarán perfeccionados sin el cumplimiento de dicha forma.

Cuando se trate de un acto que usualmente revista una forma determinada, se presumirá que las partes han querido supeditar la perfección del acto al cumplimiento de la misma.

En los casos en que esta Compilación exija cierta forma, se considerará de solemnidad.

Ley 19

Nulidad, anulabilidad y rescisión

Sin perjuicio de lo dispuesto en la ley 50, son nulas las declaraciones de voluntad emitidas por menores no emancipados o personas que no se hallen en su cabal juicio, las de objeto imposible o inmoral y todas aquellas que estén prohibidas por la ley.

Son anulables las declaraciones viciadas por error, dolo o violencia física o moral graves, pero no podrá alegarse el error inexcusable de hecho o de Derecho.

Son rescindibles las declaraciones de voluntad cuando así lo disponga la ley.

Ley 20

Silencio u omisión

El silencio o la omisión no se considerarán como declaración de voluntad, a no ser que así deba interpretarse conforme a la ley, la costumbre o los usos, o lo convenido entre las partes.

Ley 21

Simulación

Los actos producen los efectos propios de la declaración manifestada por las partes, pero si fueran simulados sólo valdrá lo que aquéllas hayan querido realmente hacer, siempre que fuere lícito y reúna todos los requisitos formales que la ley exija para el mismo.

La nulidad de la declaración simulada no puede alegarse contra terceros de buena fe.

Ley 22

Fraude a terceros

Los actos realizados con intención de excluir injustamente el derecho de un tercero pueden impugnarse a la vez que se ejercita el derecho que se intentó defraudar.

Burutze formala

Borondatea adierazteko forma edozein izanda ere, aitorten hori baliozkoa eta zuzenbidearen araberakoa da, berorrek erakarritako eskubideak egikaritzeko.

Dena den, legeak ez badu forma zehatzik ezartzen egintza edo kontratu jakin batzuentzat, baina forma hori esanbidez hitzartu bada, egintza edo kontratu horiek ez dira burututzat joko, forma hori betetzen ez bada.

Egintza bati forma zehatza eman ohi bazaio, uste izanen da alderdiek egintzaren burutzapena jarri nahi izan dutela forma hori betetzearen menpe.

Konpilazio honen aginduz forma jakina bete behar den kasuetan, hori solemnetzat hartuko da.

19. legea

Deuseztasun, deuseztakortasun eta hutsalketa

50. legean xedatutakoari kalterik egin gabe, deusezak dira adingabeko emantzipatugabeek eta zentzutasunik ez dutenek egindako borondate-aitorpenak, bai eta helburu ezinezkoa edo moralaren aurkakoa dutenak, eta legez debekaturik daudenak ere.

Xedatzaileak aurkakoa ezartzen duenean izan ezik, fideikomisodunek fiduziarioari galda diezaiokete edozein unetan eskuraturiko ondasunen inbentarioa egiteko eta horiek itzuliko dituela bermatzeko.

Fideikomisodunekin akordiorik lortu ezean, bermea izanen da:

1. Ondasun higiezinak Jabetza Erregistroan inskribatzea, inskripzio horretan fideikomisoa agerraraziz.
2. Balore-tituluak banku-establezimenduan gordailatzea, horren gordekinetan fideikomisoa agerraraziz.
3. Epailearen ustez nahiko den kauziora ematea, bestelako ondasunak direnean.

232. legea

Fiduziarioaren eskubideak

Hurrengo legeetan ezarritako mugapenak izan ezik, fiduziarioak jabeari dagozkion eskubide guztiak ditu; baina fideikomisodunari itzuli beharko dizkio eskuraturiko ondasunak, subrogatuak, eta berezko akzesioek eta hobekuntza banaezinek dakartzaten gehikuntzak.

Banantzeke dauden fruituei eta fiduziarioak izandako gastuei dagokienez, fiduziarioak gozamenaren eskubide berberak izanen ditu.

233. legea

Besterentze eta kargatzea

Fiduziarioak ondasunak besteren eta karga ditzake, kargarik gabeko ondasun gisa, hurrengo kasu eta moduetan:

1. Bere kabuz, xedatzaileak horretarako baimena eman badio; kasu horretan, eskuratutako ondasunak subrogatuko dira besterenduen lekuan.
2. Fideikomisodun guztien adostasunarekin,

fideicomisarios, cuando el disponente no lo hubiere autorizado, sin prohibirlo expresamente.

En defecto del consentimiento de todos los fideicomisarios o cuando alguno de éstos sea persona incierta, futura o actualmente indeterminada, el fiduciario podrá hacerlo con autorización del Juez competente, que la concederá sólo en casos de necesidad o utilidad evidente, en acto de jurisdicción voluntaria y adoptando las medidas oportunas para asegurar la subrogación.

Ley 234

Facultades del fiduciario por sí solo

El fiduciario por sí solo podrá:

1. Pedir y practicar la partición de la herencia, la división de cosa común y el deslinde y amojonamiento, siempre que se trate de puros actos de partición, división o deslinde; de no ser así, se precisará el consentimiento de los fideicomisarios o la autorización judicial, conforme a lo dispuesto en la ley anterior.
2. Cancelar por cobro créditos hipotecarios o pignoraticios y retrovender bienes comprados a carta de gracia o con pacto de retro.
3. Realizar las enajenaciones a que se hubiere obligado el fideicomitente y cualesquiera otros actos de cumplimiento de deberes inherentes a la propiedad y anteriores a la adquisición por el fiduciario.
4. Dar dinero a préstamo, respondiendo de la solvencia del deudor.
5. Sustituir, sin detrimento del fideicomiso, los bienes consumibles y los que se deterioren o desgasten con el uso.

Ley 235

Subrogación

Siempre que, conforme a las leyes anteriores, el fiduciario enajenare como libres o sustituyere bienes objeto del fideicomiso, quedarán afectos a éste el dinero o los bienes que los sustituyeron por subrogación.

Ley 236

Autorización al fiduciario para elegir fideicomisarios

El disponente puede autorizar al fiduciario para elegir libremente el fideicomisario o fideicomisarios entre los señalados por aquél y determinar la distribución de los bienes igual o desigualmente.

Salvo que el disponente lo hubiere autorizado, el fiduciario no podrá imponer limitaciones a los

xedatzaileak ez duenean horretarako baimenik eman, ezta esanbidez debekurik ezarri ere.

Fideikomisodun guztien adostasunik izan ezean, edo fideikomisodun horietako bat zalantzazkoa, etorkizunekoa edo orain zehaztugabea bada, fiduziarioak egin ahal izanen du, epaile eskudunak horretarako baimena emanda; epaileak, betiere, ageriko beharizan- edo onura-kasuetan bakarrik emanen du baimena, borondatezko jurisdikziopeko egintzan, eta subrogazioa ziurtatzeko neurri egokiak hartuz.

234. legea

Fiduziarioak bere kabuz dituen ahalmenak

Fiduziarioak bere kabuz:

1. Eskatu eta egin ahal izanen ditu jarauntsiaren banaketa, gauza erkidearen zatiketa eta mugaketa edota mugariak jartzea, baldin eta horiek banaketa-, zatiketa- edo mugaketa-egintza hutsak badira; hala ez bada, beharrezkoa izanen da fideikomisodunen adostasuna edo epailearen baimena, aurreko legean xedaturikoarekin bat etorritik.
2. Kreditu hipotekario edo pignorazioak kobratzean, horiek kitatu ahal izanen ditu, bai eta grazia-agiriarekin nahiz atzera-eskuratzeko itunarekin erositako ondasunak atzera-saldu ere.
3. Fideikomisogileak bere gain hartu badu besterentze batzuk egiteko betebeharra, fiduziarioak besterentze horiek egin ahal izanen ditu; halaber, jabetzari datzekion eginbeharrak betetzeko, fiduziarioak egintzak buru ditzake, eginbeharrak fiduziario horren eskuraketa gertatu baino lehenagokoak izan arren.
4. Dirua maileguan eman dezake, eta zordunaren kaudimenaren gaineko erantzukizuna izanen du.
5. Fideikomisoari kalterik egin gabe, ondasun kontsumikorak eta erabileraren erabileraz narriatu edo gastatzen direnak ordeztu ditzake.

235. legea

Subrogazioa

Aurreko legeekin bat etorritik, fiduziarioak kargarik gabeko ondasun gisa besterendu edo ordeztu baditu fideikomisoaren objektu diren ondasunak, fideikomisoari lotuta geratuko dira horien ordeztu subrogaturiko dirua edo ondasunak.

236. legea

Fiduziarioari baimena ematea, fideikomisodunak aukeratzeko

Xedatzaileak baimena eman diezaioke fiduziarioari berak zehazturiko pertsonen artean fideikomisodun bat edo batzuk askatasunez aukera ditzan, eta ondasunak hainbana edo zati desberdinetan banatzeko erabakia har dezan.

Xedatzaileak baimena eman ezik, fiduziarioak ezin izanen die mugapenik ezarri fideikomisodunei, salbu

fideicomisarios a no ser que resulten en beneficio de otros de los fideicomisarios señalados por el disponente.

Si el fiduciario hiciere por testamento la elección de fideicomisario y la distribución de bienes, podrá revocarla libremente.

Si la hiciere por contrato sucesorio o acto inter vivos, será irrevocable, sin perjuicio de la facultad de nombrar otro fideicomisario en caso de que el nombrado falleciere o deviniere incapaz o renunciare antes de deferirse el fideicomiso.

Si el fiduciario no hiciera uso de esa facultad, todos los fideicomisarios lo serán por partes iguales.

En este caso, y cuando el disponente no hubiere designado nominativamente a los fideicomisarios, la determinación podrá hacerse por acta notarial de notoriedad o información ad perpetuam memoriam.

Ley 237

Renuncia

En las sustituciones fideicomisarias a término, el fiduciario podrá anticipar mediante renuncia la delación del fideicomiso.

Cesión

El fiduciario y el fideicomisario podrán ceder sus respectivos derechos.

La cesión por el fiduciario quedará limitada por el cumplimiento de la condición o la llegada del término a los que estuviera sometido el fideicomiso, y la cesión por el fideicomisario surtirá efecto a partir de ese mismo momento.

La cesión a favor de tercero no confiere a éste en caso alguno la cualidad de heredero, y será aplicable lo dispuesto en el título XIX de este libro para la cesión de herencia.

Ley 238

Purificación del fideicomiso

Salvo que otra cosa se hubiere dispuesto, quedará purificado el fideicomiso, y en consecuencia liberado el fiduciario de la obligación de restituir, en caso de fallecimiento o incapacidad de los fideicomisarios en vida del fiduciario, así como también en los de renuncia o cesión a favor de éste.

CAPÍTULO IV

De la sustitución de residuo

Ley 239

Disposición de bienes por el instituido

En las sustituciones de residuo, si no se hubiere ordenado otra cosa, el instituido sólo podrá disponer

eta halakoak ezarri direnean xedatzaileak zehazturiko beste fideikomisodunen onurarako.

Fiduziarioak testamentu bidez fideikomisoduna aukeratu badu eta ondasunak banatu baditu, aukeraketa eta banaketa horiek askatasunez ezeztatu ahal izanen ditu.

Aukeraketa eta banaketa oinordetza-itunetan edo inter vivos egintzetan eginez gero, ezeztaezinak izanen dira; dena den, beste fideikomisodun bat izendatu ahal izanen da, izendatua hil edo ezgaiturik suertatzen bada, edo horri uko egiten badio fideikomisoa gauzatu baino lehen.

Fiduziarioak ez badu ahalmen hori erabiltzen, fideikomisodun guztiak izanen dira halakoak, hainbana.

Kasu horretan, eta xedatzaileak ez baditu fideikomisodunen izenak aipatu, haiek izendatzeko, zehaztapena egin ahal izanen da, notarioak emandako nabaritasun-aktaren bitartez edo ad perpetuam memoriam informazioaren bitartez.

237. legea

Uko egitea

Fideikomisozko ordezenak epe-mugadunak badira, fiduziarioak, uko eginda, fideikomisoaren delazioa aurreratu ahal izanen du.

Lagapena

Fiduziarioak eta fideikomisodunak euren eskubideak laga ahal izanen dituzte.

Fiduziarioaren lagapena mugatuta geratuko da, fideikomisoari ezarritako baldintza bete edo epe-muga heldu arte, eta fideikomisodunaren lagapenak eragina izanen du, une horretatik aurrera.

Hirugarren bati egindako lagapenak ez dio inola ere horri jaraunsle-izaerarik ematen, eta liburu honetako XIX. tituluaren jaraunsiaren lagapenari buruz xedaturikoa aplikatuko da.

238. legea

Fideikomisoa zuritzea

Bestelakoa xedatzen ez bada, fideikomisoa zuriturik geratuko da, eta, ondorenez, fiduziarioa itzulketa-betebeharretik aske egonen da, fideikomisodunak hil edo ezgai suertatzen badira fiduziarioa bizirik dagoela, edota fiduziarioaren mesederako fideikomisoari uko egiten bazaio edo fideikomiso hori lagatzen bada.

IV. KAPITULUA

Hondakinaren gaineko ordezena

239. legea

Izendatuak ondasunak xedatzea

Hondakinaren gaineko ordezenetan bestelakoa agintzen ez bada, izendatuak inter vivos egintzen

de los bienes por actos inter vivos y a título oneroso.

Si se le hubiese autorizado para disponer incluso a título lucrativo, se presumirá que está autorizado para disponer por actos inter vivos o mortis causa.

Residuo

Los bienes de que el instituido no hubiese dispuesto válidamente pasarán, en el momento establecido o evento previsto, a la persona o personas designadas para recibirlos.

TÍTULO IX DE LOS LEGADOS

Ley 240

Régimen

En defecto de la disposición de voluntad o de la ley especial, las leyes de esta Compilación que regulan los legados se aplicarán a todo acto de liberalidad a título singular.

Ley 241

Concepto

Son mandas o legados aquellas liberalidades mortis causa a título singular que no atribuyen la cualidad de heredero, y que se imponen a cualquier persona que a título lucrativo reciba bienes del disponente, por voluntad del mismo o de la ley.

Ley 242

Efectos

El legado de cosa específica y determinada propia del disponente tiene eficacia real, y el legatario adquiere la propiedad a la muerte del causante.

En los legados de otra clase, el legatario sólo tiene acción personal para exigir su cumplimiento.

Ley 243

Posesión

El legatario por sí solo no puede tomar posesión de la cosa legada, sino que deberá exigirla de la persona gravada con el legado o de la facultada para su entrega; estas personas tendrán a su favor el interdicto de recobrar cuando el legatario, sin previa entrega, hubiese tomado posesión de la cosa legada.

Sin embargo, el legatario podrá tomar posesión del legado:

1. Cuando el disponente lo hubiere autorizado.
2. Cuando, no habiendo heredero, el legatario lo sea de parte alícuota o de usufructo universal.

bitartez eta kostu bidez bakarrik xedatu ahal izanen ditu ondasunak.

Izendatuari xedatzeko baimena eman bazaio, bai eta dohainik xedatzekoa ere, uste izanen da inter vivos nahiz mortis causa egintzen bidez xedatzeko baimena duela.

Hondakina

Izendatuak ez baditu ondasun batzuk baliozkotasunez xedatu, ondasun horiek eskualdatuko zaizkie, ezarritako unean edo aurreikusitako jazokuntza gertatzean, horien jasotzaile gisa izendaturiko pertsonari edo pertsonari.

IX. TITULUA LEGATUAK

240. legea

Araubidea

Borondatezko xedapenik edo lege berezirik izan ezean, konpilazio honetan legatuak arautzen dituzten legeak aplikatuko zaizkie banakako tituluaren bidezko eskuzabaltasun guztiei.

241. legea

Kontzeptua

Agintza edo legatu dira mortis causa eta banakako tituluaren bidez egindako eskuzabaltasunak, baldin eta horiek jaraunsle-izaerarik eratzikitzen ez badute, eta horiek ezartzen bazaizkie xedatzailearen eskutik, beraren borondatez edo legez, ondasunak dohainik jasotzen dituzten pertsonari.

242. legea

Ondoreak

Legatu moduan ematen bada xedatzailearen beraren gauza jakin eta zehatz bat, legatu horrek eragingarritasun erreala du, eta legatu-hartzaileak jabetza eskuratzen du kausatzailea hildakoan.

Bestelako legatuetan, legatu-hartzaileak akzio pertsonala bakarrik du legatua bete dadin galdatzeko.

243. legea

Edukitza

Legatu-hartzaileak bere kabuz ezin du legatupeko gauzaren edukitza eskuratu; aitzitik, hori galdatu beharko dio legatuarekin kargaturiko pertsonari edo edukitza emateko ahalmena duenari. Pertsona horiek edukitza berreskuratzeko interdiktua erabili ahal izanen dute, legatu-hartzaileak, ematea gertatu baino lehen, legatupeko gauzaren edukitza eskuratu badu.

Hala ere, legatu-hartzaileak legatuaren edukitza eskuratu ahal izanen du:

1. Xedatzaileak horretarako baimena eman duenean.
2. Jaraunslerik izan ez, eta legatu- hartzailea zati alikuotaren edo gozamen unibertsalaren gainean izendatu denean.

3. Cuando, en el caso de que toda la herencia estuviese distribuida en legados, todos los legatarios se hallaren de acuerdo y no hubiere legatario de parte alícuota ni otra persona facultada para la entrega; si no se pusieren de acuerdo, podrán los legatarios acudir al Juez para recabar dicha entrega.

Ley 244

Reducción

Salvo que otra cosa hubiese establecido el disponente, si hubiera que reducir los legados para el pago de las deudas hereditarias o el caudal hereditario resultara insuficiente para satisfacer todos los legados, se reducirán éstos a prorrata.

Igualmente se hará la reducción, si existieren deudas y la herencia hubiere sido íntegramente distribuida en legados que no sean de parte alícuota.

Ley 245

Frutos

Los legatarios hacen suyos los frutos o rentas desde que judicial o extrajudicialmente hubieren exigido la entrega.

Excepcionalmente, en los legados con fin piadoso o benéfico, los frutos e intereses se deberán desde la muerte del testador.

Ley 246

Legado de universalidad

Si el legado es de una universalidad, corresponderán al legatario todas las cosas o derechos que en el momento de la muerte del disponente formaban parte del conjunto.

Ley 247

Legado de cosa genérica

En el legado de cosa genérica, la elección corresponde al legatario, sin perjuicio de lo establecido por el disponente.

Ley 248

Legado alternativo

En el legado alternativo de efecto real, la elección corresponde al legatario, y en el de efecto personal, al heredero, salvo que fuera otra la voluntad del disponente.

Ley 249

Legado de cosa ajena

El legado de cosa ajena o de constitución de un derecho real sobre cosa ajena sólo será válido si el legatario prueba que el testador sabía que la cosa era ajena.

Cuando sea válido el legado, el heredero podrá liberarse de su obligación abonando el valor según justa estimación.

3. Jarauntsi osoa legatuetan banatuta egonik, legatu-hartzaile guztiak ados daudenean, eta zati alikuotaren gaineko legatu-hartzailearik edo ematea gauzatzeko ahaldunik ez dagoenean; ados jartzen ez badira, legatu-hartzaileek epailearengana jo ahal izanen dute emate hori eskatzeko.

244. legea

Urripena

Xedatzaileak bestelakorik ezarri ezean, legatuak urritu behar badira jarauntsiko zorrak ordaintzeko, edo jarauntsiko ondasunak nahiko ez badira legatu guztiak ordaintzeko, legatu horiek lainean urrituko dira.

Urripena eginen da, orobat, zorrak badaude eta jarauntsia oso-osorik banatu bada, zati alikuotaren gaineko legatuaz besteko legatuetan.

245. legea

Fruituak

Legatu-hartzaileek fruitu nahiz errentak bereganatzen dituzte epaiketean edo epaiketatik kanpo legatuaren ematea galdatu dutenetik.

Salbuespenez, legatuek erruki- edo ongintza-xedea badute, fruitu edo korrituak zorko dira testamentugilea hiltzen den unetik.

246. legea

Unibertsaltasunaren gaineko legatua

Legatua unibertsaltasun baten gainekoa bada, legatu-hartzaileari dagozkio xedatzailearen heriotzanean unibertsaltasun horren osagai ziren gauza edo eskubide guztiak.

247. legea

Gauza generikoaren gaineko legatua

Gauza generikoaren gaineko legatuan, legatu-hartzaileari dagokio aukeratzea, xedatzaileak ezarritakoari kalterik egin gabe.

248. legea

Hautabidezko legatua

Hautabidezko legatuek eragingarritasun erreala dutenean, legatu-hartzaileari dagokio aukeratzea, eta, eragingarritasun pertsonala dutenean, jaraunsleari, xedatzailearen borondatea bestelakoa izan ezik.

249. legea

Inoren gauzaren gaineko legatua

Inoren gauzaren gaineko legatua edo inoren gauzaren gainean eskubide erreala eratzeko legatua baliozkoa izanen da, bakar-bakarrik, legatu-hartzaileak frogatzen badu testamentugileak bazekiela gauza inorena zela.

Legatua baliozkoa denean, jaraunslea bere betebeharetik askatu ahal izanen da balioa zenbatespen zuzenaren arabera ordainduz.

Ley 250

Legado de usufructo universal

Salvo disposición en contrario, el legado de usufructo universal comprenderá la totalidad de los bienes relictos, excepto los excluidos por las leyes 255 y 256.

Cualesquiera legados distintos de los señalados en los números 5, 6 y 7 de la ley 255 quedarán afectados por el usufructo universal, y sólo se entregarán al extinguirse este derecho.

El testador podrá relevar al usufructuario de las obligaciones de hacer inventario y prestar garantía.

Cuando expresamente se hayan concedido al usufructuario facultades de disposición, en cuanto al ejercicio de éstas se aplicará lo establecido en la ley 239, y respecto al pago a los acreedores hereditarios lo dispuesto en las leyes 318 y 319.

Ley 251

Legado de bienes de conquista

En el legado de bienes de conquista, cuando un cónyuge los legue a favor del otro, o ambos conjuntamente a favor de tercera persona, se entenderá que cada uno lega la mitad del objeto legado.

Cuando uno de los cónyuges, separadamente, legue a tercera persona el objeto entero, será válido el legado en su totalidad; pero, en cuanto a lo que en la liquidación de la sociedad de conquistas no fuere adjudicado a la herencia del causante, el efecto será meramente personal, como si fuere legado válido de cosa ajena.

Ley 252

Extinción del legado

Se extinguirá el legado de cosa específica y determinada propia del disponente cuando a la muerte de éste la cosa pertenezca a otra persona.

Sin embargo, si el legatario la hubiese adquirido a título oneroso de persona distinta del disponente, se entenderá legado el precio o el valor de la contraprestación que dio el legatario.

TÍTULO X

DE LAS LIMITACIONES A LA LIBERTAD DE DISPONER

CAPÍTULO I

Del usufructo legal de fidelidad

Ley 253

Concepto

El cónyuge viudo tiene el usufructo de fidelidad sobre todos los bienes y derechos que al premuerto

250. legea

Gozamen unibertsalaren gaineko legatua

Aurkako xedapenik izan ezean, gozamen unibertsalaren gaineko legatuak bere barruan hartuko ditu kausatzaileak utzitako ondasun guztiak, 255 eta 256. legeek baztertutakoak izan ezik.

255. legeko 5, 6 eta 7. zenbakietan aipaturikoez besteko legatuak gozamen unibertsalarekin lotuta geratuko dira, eta ondasunok emanen dira eskubide hori azkentzean bakarrik.

Testamentugileak gozameduna aska dezake inbentarioa egiteko eta bermea emateko betebeharretatik.

Gozamedunari xedatze-ahalmenak eman bazaizkio esanbidez, ahalmenon egikaritzari aplikatuko zaio 239. legean ezarritakoa, eta, jarauntsiko hartzekodunen ordainketari, 318 eta 319. legeetan xedaturikoa.

251. legea

Konkista-ondasunen gaineko legatua

Konkista-ondasunen gaineko legatuan, ezkontide batek ondasunok legatuan ematen badiu bestearen mesederako, edo biek batera egiten badute legatua hirugarren baten mesederako, ulertuko da horietako bakoitzak legatuan ematen duela legatupeko objektuaren erdia.

Ezkontide batek, bere kabuz, hirugarren bati legatuan ematen badio objektu osoa, legatua baliozkoa izanen da, oso-osorik; baina, konkista-sozietatea likidatzean kausatzailearen jarauntsiari adjudikatzen ez zaion zatiaren gainean, eragina pertsonala izanen da huts-hutsean, inoren gauzaren gaineko legatu baliozko gisa.

252. legea

Legatua azkentzea

Legatuan eman bada xedatzailearen beraren gauza jakin eta zehatza, legatu hori azkenduko da, haren heriotza-unean gauzaren jabetza beste pertsona batena bada.

Hala ere, legatu-hartzaileak gauza kostu bidez eskuratzen badu xedatzaileaz bestelako pertsona batengandik, ulertuko da legatupekoa dela legatu-hartzaileak emandako kontraprestazioaren prezio edo balioa.

X. TITULUA

XEDATZEKO ASKATASUNAREN MUGAPENAK

I. KAPITULUA

Fideltasunaren ondoriozko lege-gozamena

253. legea

Kontzeptua

Alargunak fideltasun-gozamena du aurrez hildakoari heriotza-unean dagozkion ondasun eta eskubide

pertenecían en el momento del fallecimiento.

Se considera equiparada a estos efectos a la situación del cónyuge viudo el miembro sobreviviente en caso de fallecimiento del otro miembro de una pareja estable reconocida por la Ley*.

* Este párrafo ha sido añadido por la Ley Foral 6/2000, de 3 de julio, para la igualdad jurídica de las parejas estables, contra la que se ha interpuesto recurso de inconstitucionalidad.

Ley personal

El usufructo de fidelidad se dará en favor del cónyuge sobreviviente cuando el premuerto tuviera la condición foral de navarro al tiempo de su fallecimiento.

Inalienabilidad

Este derecho es inalienable; no obstante, los nudo propietarios y el usufructuario conjuntamente podrán enajenar o gravar el pleno dominio de los bienes sobre los que recae el usufructo.

Renuncia

Es válida la renuncia anticipada del usufructo de fidelidad otorgada en escritura pública, antes o después del matrimonio.

Ley 254

Exclusión del usufructo

No tendrá el usufructo legal de fidelidad:

1. En la separación de hecho:

a) Ninguno de los cónyuges si la hubieron convenido o consentido; no se entenderá consentida por el cónyuge abandonado, aunque éste no denuncie el abandono ni inste la separación judicial, salvo que, requerido fehacientemente por el otro, dentro del término de seis meses no manifieste su voluntad contraria a la separación.

b) El cónyuge que motivó la separación por infidelidad conyugal, incumplimiento grave de los deberes familiares o por haber atentado contra la vida del otro.

2. En la separación de derecho:

a) Ninguno de los cónyuges si la hubieron convenido o consentido.

b) El cónyuge que incurrió en causa de separación por abandono del hogar familiar, infidelidad conyugal, incumplimiento grave o reiterado de los deberes conyugales o familiares o por haber atentado contra la vida del otro.

c) El cónyuge que la haya pedido en razón a la separación de hecho no consentida por el otro.

guztien gainean.

Ondorio hauetarako, legeak onartutako bikote egonkorraren kide bat hilez gero, alargun gelditzen den kidearen egoera ezkontide alargunaren egoeraren parekotzat joko da*.

* Uztailaren 3ko 6/2000 Foru Legeak, Bikote Egonkorrentzako Berdintasun Juridikoari buruzkoak, lerrokada hori gaineratu du; dena den, konstituzioaurkakotasun-errekurtsoa jarri da lege horren aurka.

Lege pertsonala

Fideltasun-gozamena alargunarentzat gertatuko da, aurrez hildakoak Nafarroako forudunaren izaera baldin badu heriotza-unean.

Besterenduezintasuna

Eskubide hori besterenduezina da; dena den, jabe soilek eta gozamedunak, guztiek batera, besterendu edo kargatu ahal izanen dute gozamenpeko ondasunen jabari osoa.

Uko egitea

Baliozkoa da fideltasun-gozamenari aurretiaz egindako ukoa, hori eskritura publikoan egin bada, ezkontzaren aurretik edo horren ondoren.

254. legea

Gozamenetik baztertzea

Ez du fideltasunaren ondoriozko lege- gozamenik izanen:

1. Egitezko banantze-kasuetan:

a) Ezkontideetatik inork ere ez, biek hitzartu edo adostu badute banantze hori; ez da ulertuko bertan behera utzitako ezkontideak adostasuna eman duenik, nahiz eta horrek bertan behera uztea salatu ez, edo epaiketazko banantzea eragin ez, salbu eta, beste ezkontideak agindei sinesgarria eginda, sei hilabeteko epean banantzearen aurkako borondaterik agertu ez duenean.

b) Banantzea eragin duen ezkontideak, hori gertatu bada fideltasunik ez izateagatik, familia-eginbarren ezbetetze larriarengatik, edo beste ezkontidearen biziaren aurka atentatzeagatik.

2. Zuzenbidezko banantzean:

a) Ezkontideetatik inork ere ez, biek hitzartu edo adostu badute banantze hori.

b) Banantze-arrazoian sartu den ezkontideak, hori gertatu bada familiaren etxea bertan behera uzteagatik, ezkontideen artean fideltasunik ez izateagatik, ezkontzako nahiz familiako eginbarren ez-betetze larri edo errepikatuarengatik, edo beste ezkontidearen bizitzaren aurka atentatzeagatik.

c) Banantzea eskatu duen ezkontideak, hori eskatzeko arrazoia izan bada besteak adostu ez duen egitezko banantzea.

d) Ninguno de los cónyuges en los demás casos de separación.

3. El cónyuge que hubiere sido ejecutoriamente condenado por haber atentado contra la vida del otro.

4. El que, por sentencia firme, hubiere sido privado de la patria potestad sobre los hijos comunes.

En testamento o contrato sucesorio, un cónyuge podrá privar del usufructo de fidelidad al otro, si éste hubiere incurrido en cualquiera de las causas previstas en el apartado 2.b de esta ley, aunque no haya separación.

Ley 255

Extensión

El usufructo se extiende a los bienes y derechos pertenecientes al cónyuge premuerto, aunque estén afectos a llamamiento, reversión o restitución, con excepción de los siguientes:

Bienes excluidos

1. Los bienes sujetos a sustitución fideicomisaria, salvo que el disponente establezca lo contrario.

2. Los derechos de usufructo, uso, habitación u otros de carácter vitalicio y personal.

3. Los bienes que el cónyuge premuerto hubiere recibido por título lucrativo y con expresa exclusión del usufructo de fidelidad.

4. Los bienes que hubieren sido objeto de donación mortis causa.

5. Los legados piadosos o para entierro y funerales.

6. Los legados para dotación de hijos u otros parientes a los que el testador se hallare obligado a dotar.

7. Y los legados remuneratorios, siempre que conste la existencia del servicio remunerado.

Ley 256

Caso de segundas nupcias

Del usufructo del cónyuge viudo de segundas o ulteriores nupcias del premuerto quedan excluidos los bienes siguientes:

1. Los que deben reservarse en favor de los hijos o descendientes de matrimonio anterior, conforme a lo establecido en las leyes 274 y 275.

2. Los que el cónyuge bínubo deba dejar en favor de los mismos hijos y descendientes con preferencia respecto a los del matrimonio posterior, según lo establecido en la ley 272.

3. Los que el cónyuge bínubo hubiere adquirido por título lucrativo con llamamiento sucesorio en favor de

d) Ezkontideetatik batek ere ez, gainerako banantze-kasuetan.

3. Beteazpen-bidean kondenatua izan den ezkontideak, hori gertatu bada bestearen bizitzaren aurka atentatzeagatik.

4. Epai irmoaren bidez, bi ezkontideen seme-alaben gaineko guraso-ahala galdu duenak.

Testamentuan edo oinordetza-itunean, ezkontide batek besteari ken diezaioke fideltasun-gozamena, azken hori sartu denean lege honetako 2.b idatzatian aipaturiko arrazoietatik batean, nahiz eta banantzerik egon ez.

255. legea

Hedadura

Gozamena hedatzen da, aurrez hildako ezkontideari dagozkion ondasun eta eskubideetara, nahiz eta horiek dei, lehengoratze edo itzulketari lotuta egon, jarraiko ondasun eta eskubideak salbu:

Baztertutako ondasunak

1. Fideikomisozko ordezenaren mendeko ondasunak, xedatzaileak aurkakoa ezartzen duenean izan ezik.

2. Gozamena, erabili eta biztantzeko eskubideak edota bizi arteko izaera pertsonala duten beste eskubideak.

3. Aurrez hildako ezkontideak dohainik eskuraturiko ondasunak, horiek fideltasun-gozamenetik esanbidez baztertu badira.

4. Mortis causa dohaintzaren objektu izan diren ondasunak.

5. Erruki-legatuak edo lurperatzea eta hiletak ordaintzeko emandakoak.

6. Seme-alabei zuzkidura egiteko legatuak edo, testamentugileak ahaideei zuzkidura emateko betebeharra badu, betebeharrak hori gauzatzeko legatua.

7. Eta ordain gisa emandako legatuak, zurrak bada ordaindu beharreko zerbitzua egin dela.

256. legea

Bigarrenez ezkondurik egotea

Aurrez hildakoaren bigarren edo gehiagorren ezkontzakoa bada alarguna, alargun horri dagozkion gozamenetik baztertuta geratzen dira hurrengo ondasunak:

1. Aurreko ezkontzako seme-alaba edo ondorengoentzat erreserbatu beharrekoak, 274 eta 275. legeetan ezarritakoarekin bat etorri.

2. Bigarrenez ezkondukoak seme-alaba eta ondorengo berberentzat lehenespenez utzi beharrekoak, geroko ezkontzako aurretik, 272. legean ezarritakoaren arabera.

3. Bigarrenez ezkondukoak dohainik eskuratu dituenak, baldin eta aurreko ezkontzako seme-alaba

© Nafarroako Foru Berriaren itzulpena eta lan honetako aurkibide analitiko guztiak:

Begoña Landa, Gotzon Lobera, Andres Urrutia, Esther Urrutia,

Nafarroako Parlamentuko itzultzaileak eta Nafarroako Gobernuko Itzulpen Ataleko zenbait itzultzaile, eta IVAP/HAEEko Itzultzaile Zerbitzu Ofiziala

© Deustuko Unibertsitatea. Euskal Gaien Institutua

© IVAP/HAEEko Itzultzaile Zerbitzu Ofiziala

hijos o descendientes de anterior matrimonio, si éstos sobrevivieren.

Se exceptúa el caso de que para las segundas o posteriores nupcias se hubiese obtenido el consentimiento de todas las personas que ordenaron el llamamiento, o de las sobrevivientes.

Ley 257

Inventario

El cónyuge viudo no adquirirá el usufructo de fidelidad si no hiciere inventario de todos los bienes a que conocidamente se extienda el usufructo.

El inventario, que debe constar en escritura pública, se iniciará dentro de los cincuenta días siguientes a la fecha de la muerte o de la declaración de fallecimiento del consorte y se terminará dentro de otros cincuenta.

Dentro de este plazo de cien días podrán adicionarse en nuevos inventarios los bienes que se hubieran omitido.

En caso de fuerza mayor, se suspenderán estos plazos mientras la causa dure.

Si el usufructo de fidelidad no hubiere de empezar hasta extinguirse un usufructo establecido en favor de otras personas, estos plazos empezarán a contarse a partir de la fecha de extinción del usufructo voluntario.

En cualquier supuesto de nulidad del testamento o del contrato sucesorio, o de la institución de heredero ordenada en dichos actos, los plazos para la formalización de inventario empezarán a contarse a partir de la fecha en que al cónyuge viudo le fuera notificada la sentencia firme que hubiese declarado la nulidad.

A requerimiento del nudo propietario, el usufructuario está obligado a declarar ante qué Notario formalizó el inventario o adición al mismo.

El nudo propietario tendrá derecho a obtener copia, y podrá requerir al usufructuario para que subsane en escritura pública los errores y omisiones en que se hubiere incurrido.

Ley 258

Derechos

El cónyuge viudo tendrá todos los derechos que, en general, corresponden al usufructuario conforme al capítulo primero del título IV del libro tercero, y los que, en su caso, voluntariamente, le hubiesen sido concedidos por el cónyuge premuerto o hubieran sido pactados.

Además, cuando el usufructo de fidelidad recaiga sobre acciones de sociedades anónimas, y siempre que los estatutos, pactos o acuerdos sociales no dispongan otra cosa, se observarán las reglas

edo ondorengoei oinordetzara deitu bazaie eta horiek bizirik badaude.

Salbuespen gisa har daiteke, bigarrenez edo gehiagogarrenez ezkontzeko, deia ordenatu duten pertsona guztiek edo horietatik bizirik daudenek euren adostasuna ematea.

257. legea

Inbentarioa

Alargunak ez du fideltasun-gozamenik eskuratuko, baldin eta gozamen horren hedadura ezagunean sartzen diren ondasun guztiekin ez badu inbentarioa egiten.

Inbentarioa eskritura publikoan agerrarazi behar da, eta horri hasiera emanen zaio, ezkontidearen heriotza gertatu edo horren heriotza-adierazpena egin eta hurrengo berrogeita hamar egunetan, eta amaiera emanen zaio beste berrogeita hamar egunetan.

Ehun eguneko epe horretan, inbentario berrien bidez gehi daitezke sartu gabe geratu diren ondasunak.

Ezinbesteko kasuetan, epeok eten egingen dira arrazoiak dirauen artean.

Fideltasun-gozamenak ez badu hasi behar beste pertsona batzuentzat ezarritako gozamena azkendu arte, epeon zenbaketa hasiko da borondatezko gozamena azkentzen denean.

Testamentua, oinordetza-ituna edo halako egintzetan ordenaturiko jaraunsle-izendapena deuseza bada, inbentarioa egiteko epeen zenbaketa hasiko da deuseztasuna deklaratzeko epai irmoa alargunari jakinarazten zaionean.

Jabe soilak hala eskatuta, gozamendunak nahitaez adierazi beharko du zein notarioren aurrean egin duen inbentarioa edo horri egindako gehikuntza.

Jabe soilak inbentarioaren kopia lortzeko eskubidea du, eta gozamendunari eskatu ahal izanen dio ongi ditzan eskritura publikoaren bidez inbentarioan izandako oker eta hutsuneak.

258. legea

Eskubideak

Alargunak izanen ditu gozamendunari orokorrean dagozkion eskubide guztiak, hirugarren liburuko IV. tituluaren lehenengo kapituluarekin bat etorritz, bai eta, hala denean, aurrez hildako ezkontideak, borondatez, berari eman dizkionak edo itundu dituenak ere.

Gainera, fideltasun-gozamena sozietate anonimoen akzioen gainean eratzten bada, eta sozietatearen estatutu, itun edo erabakiek bestelakoa xedatzen ez badute, hurrengo erregelak beteko dira:

siguientes:

1. El derecho preferente para suscribir nuevas acciones corresponde exclusivamente al nudo propietario; pero si éste no hiciera uso de su derecho, el usufructuario podrá suscribir por sí mismo a nombre del nudo propietario, abonando los desembolsos y gastos correspondientes, y en caso de no ejercitar esta facultad podrá exigir el valor de los derechos de suscripción que se hubieren enajenado.

2. El usufructo se extenderá a las nuevas acciones suscritas; pero el usufructuario deberá abonar al nudo propietario todos los desembolsos y gastos que la suscripción le hubiere reportado, y si no lo hiciera en el plazo de treinta días a contar del requerimiento del nudo propietario, no tendrá el usufructo sobre las nuevas acciones, y en tal caso le corresponderá el importe de los derechos de suscripción realizados por el nudo propietario.

En los supuestos en que el usufructuario deba indemnizar al nudo propietario por los gastos y desembolsos ocasionados, no tendrá derecho de reembolso.

3. En caso de sustitución de títulos o de amortización de acciones, el usufructo recaerá por subrogación sobre los nuevos títulos o el importe de la amortización.

4. En el usufructo de obligaciones que se conviertan en acciones, el usufructo recaerá sobre las acciones, y se aplicará lo dispuesto en los números anteriores.

Las disposiciones de esta ley sobre usufructo de acciones se observarán, en la medida en que por su naturaleza sean aplicables, al usufructo de participaciones de sociedades de responsabilidad limitada y de cuotas sociales en sociedades colectivas, comanditarias o sociedades civiles.

Ley 259

Obligaciones

El cónyuge usufructuario debe:

1. Administrar y explotar los bienes con la diligencia de un buen padre de familia.
2. Pagar los gastos de última enfermedad, entierro, funerales y sufragios del cónyuge premuerto.
3. Prestar alimentos, dentro de los límites del disfrute, a los hijos y descendientes del cónyuge premuerto, a quienes éste tuviere obligación de prestarlos, y siempre que los alimentistas se hallaren en situación legal de exigirlos.
4. Pagar con dinero de la herencia las deudas del cónyuge premuerto que fueren exigibles.

Si no hubiere dinero suficiente, podrá enajenar

© Nafarroako Foru Berriaren itzulpena eta lan honetako aurkibide analitiko guztiak:

Begoña Landa, Gotzon Lobera, Andres Urrutia, Esther Urrutia,

Nafarroako Parlamentuko itzultzaileak eta Nafarroako Gobernuko Itzulpen Ataleko zenbait itzultzaile, eta IVAP/HAEEko Itzultzaile Zerbitzu Ofiziala

© Deustuko Unibertsitatea. Euskal Gaietan Institutua

© IVAP/HAEEko Itzultzaile Zerbitzu Ofiziala

1. Jabe soilari dagokio, eta berari bakarrik, akzio berriak harpidetzeko lehenespen-eskubidea; baina horrek ez badu eskubidea erabiltzen, gozamedunak bere kabuz egin ahal izanen du harpidetza, jabe soilaren izenean, ordainketa edo gastu egokiak eginez, eta, ahalmen hori egikaritzen ez badu, besterendutako harpidetza-eskubideen balioa galda dezake.

2. Gozamena hedatuko da harpidetu diren akzio berrietara; gozamedunak jabe soilari eman beharko dizkio harpidetzaren ondorioz horrek izan dituen ordainketa eta gastu guztiak, eta ez badu hori egiten jabe soilaren agindeitik hogeita hamar eguneko epean, ez du gozamenik izanen akzio berrien gainean; kasu horretan, jabe soilak besterendutako harpidetze-eskubideen zenbatekoa bakarrik hartuko du.

Gozamedunak jabe soilari eman behar badizkio horrek egindako gastu eta ordainketak, ez du itzulketa eskubiderik izanen.

3. Tituluak ordeztu edo akzioak amortizatzen badira, gozamena titulu berrien gainekoa edo amortizazioaren zenbatekoaren gainekoa izanen da, subrogazio bidez.

4. Gozamena eratu bada akzio bihur daitezkeen obligazioen gainean, gozamena akzioen gainekoa izanen da, eta aurreko zenbakietan xedaturikoa aplikatuko da.

Akzioen gaineko gozamenari buruz lege honetan ezarritako xedapenak aplikatuko zaizkie, horien izaeraren arabera aplikagarri diren neurrian, bestelako gozamenei ere, horiek erantzukizun mugatuko sozietateen partaidetzen gain eta sozietate kolektibo, komanditako sozietate edo sozietate zibilen kuoten gain eratu badira.

259. legea

Betebeharrak

Ezkontide gozamedunak ondokoak egin behar ditu:

1. Ondasunak administratu eta ustiatu, familiako guraso on batek egingo lukeen moduan.
2. Aurrez hildako ezkontidearen azken gaixoldi, lurperatze, hileta eta arimakarien ondoriozko gastuak ordaindu.
3. Mantenua eman, luperketaren mugen barruan, aurrez hildako ezkontidearen seme-alaba eta ondorengoei, aurrez hildakoak hori emateko betebeharrak bazuen, betiere, mantenu-hartzaileek hori galdatzeko legezko egoera betetzen dutenean.
4. Aurrez hildako ezkontidearen zorrak jarauntsiaren diruarekin ordaindu, zorrok galdatzeko modukoak direnean.

Ez badago behar beste dirurik, jarauntsiko

bienes de la herencia previo acuerdo con los nudo propietarios, y a falta de acuerdo o si los nudo propietarios fueren desconocidos o estuvieron ausentes, será necesaria la autorización judicial para enajenar bienes.

5. Pagar todas las cargas inherentes al usufructo.

Ley 260

Transformación

Si el usufructuario desatendiere las indicaciones o advertencias que respecto a la administración y explotación de los bienes le hicieren los nudo propietarios, éstos podrán acudir al Juez.

Si el viudo usufructuario no pudiera o no se aviniere a cumplir la decisión judicial, los nudo propietarios podrán pedir la entrega de los bienes y la sustitución del usufructo por una renta a su cargo no inferior al rendimiento medio obtenido en los cinco últimos años y revisable cuando varíen las circunstancias objetivas.

Ley 261

Extinción

El usufructo de fidelidad se extingue:

1. Por muerte del usufructuario.
2. Por renuncia expresa en escritura pública.
3. Por contraer el usufructuario nuevas nupcias, salvo pacto o disposición en contrario del cónyuge premuerto.

Ley 262

Privación

El viudo, a petición de los nudo propietarios, perderá el usufructo de fidelidad:

1. Si viviera maritalmente con otra persona.
2. Si llevare vida notoriamente licenciosa, o corrompiera a los hijos.
3. Si enajenare o gravare bienes, salvo los casos previstos en las leyes 253 y 259, número 4, y a no ser que se hallare debidamente autorizado para ello por pacto o disposición del cónyuge premuerto.
4. Si incumpliere sus obligaciones con dolo o negligencia grave.
5. Si durante un año y un día hubiere incumplido de modo general, con negligencia, las obligaciones inherentes al usufructo de fidelidad conforme a la ley 259.

Ley 263

Interdicto

Terminado el usufructo de fidelidad, los nudo

ondasunak besterendu ahal izanen ditu, aldez aurretik jabe soilekin akordioa eginez; akordiorik lortu ezean, jabe soilak ezezagunak badira edo absente badaude, beharrezkoa izanen da epailearen baimena ondasunak besterentzeko.

5. Gozamenari datxezkion zama guztiak ordaindu.

260. legea

Transformazioa

Gozamendunak ez badie jaramonik egiten jabe soilak administrazio eta ustiapenaren inguruan emandako jarraibide edo oharrei, horiek epailearengana jo ahal izanen dute.

Alargun gozamendunak ezin badu epailearen erabakia bete edo hori bete nahi ez badu, jabe soilak ondasunak emateko eta gozamena errenta batez ordezteko eskatu ahal izanen dute; errenta hori jabe soilaren kontura emanen da eta ezin izanen da izan azken bost urteetan lorturiko batez besteko etekina baino txikiagoa, eta hori berrikusteko modukoa izan beharko da inguruabar objektiboak aldatzen direnean.

261. legea

Azkentzea

Fideltasun-gozamena azkentzen da:

1. Gozamenduna hiltzen denean.
2. Horri eskritura publikoan esanbidez uko egiten zaionean.
3. Gozamenduna berriro ezkontzen denean, aurrez hildako ezkontideak aurkako itun edo xedapena egin duenean izan ezik.

262. legea

Gozamena galtzea

Alargunak, jabe soilak hala eskatuta, fideltasun-gozamena galduko du:

1. Beste norbaitekin ezkondu-bizimodua egiten duenean.
2. Ageri-agerian bizimodu lizuna duenean, edo seme-alabak gaizpideratzen dituenean.
3. Ondasunak besterendu edo kargatzen dituenean, 253. legeak eta 259. legeko 4. zenbakiak ezarritako kasuetan salbu, eta itun bidez nahiz aurrez hildako ezkontidearen xedapen bidez horretarako baimen egokia ematen zaionean izan ezik.
4. Bere betebeharrak betetzen ez dituenean, doloaz edo zabarkeria astunaz.
5. Urtebete eta egun bateko epean zehar, orokorrean eta zabarkeriaz, fideltasun- gozamenari datxezkion betebeharrak betetzen ez dituenean, 259. legearekin bat etorritik.

263. legea

Interdiktua

Fideltasun-gozamena bukatu eta gero, jabe soilak

propietarios podrán hacer efectiva la posesión de los bienes por medio de interdicto.

Ley 264

Modificaciones voluntarias

Por voluntad del disponente o por pacto se podrá:

1. Dispensar de la obligación de hacer inventario, salvo el caso de segundas o posteriores nupcias habiendo hijos o descendientes de anterior matrimonio.
2. Facultar para enajenar o gravar los bienes.
3. Autorizar la conservación del usufructo aunque el usufructuario contraiga nuevas nupcias.
4. Exigir la constitución de garantía para el ejercicio del usufructo.
5. Imponer plazos, condiciones y cargas, o modificar de cualquier modo la adquisición, ejercicio y extinción del derecho.

En los casos previstos en los números 4 y 5 será necesario el consentimiento y aceptación del cónyuge usufructuario.

Ley 265

Analogía

En el usufructo voluntario universal o sobre bienes determinados, otorgado con condición de viudedad, a favor de cualquier persona, serán aplicables, en cuanto no se opongan al pacto o disposición que lo conceda, las leyes del presente capítulo.

Ley 266

Normas subsidiarias

En lo no establecido por este capítulo, el usufructo de fidelidad se entenderá sometido a las disposiciones generales sobre el usufructo del capítulo I del título IV del libro tercero.

CAPÍTULO II

De la legítima

Ley 267

Concepto

La legítima navarra consiste en la atribución formal a cada uno de los herederos forzosos de cinco sueldos «febles» o «carlines» por bienes muebles y una robada de tierra en los montes comunes por inmuebles.

Esta legítima no tiene contenido patrimonial exigible ni atribuye la cualidad de heredero, y el instituido en ella no responderá en ningún caso de las deudas hereditarias ni podrá ejercitar las acciones propias del heredero.

Ley 268

ondasunen edukitza eskura dezakete interdiktuaren bitartez.

264. legea

Borondatezko aldarazpenak

Xedatzailearen borondatez edo itun bidez, ondokoa gerta daiteke:

1. Inbentarioa egiteko betebeharra kentzea, salbu eta, bigarren edo geroagoko ezkontza izanik, aurreko ezkontzaren seme-alaba edo ondorengoak daudenean.
2. Ondasunak besterendu edo kargatzeko ahalmena ematea.
3. Gozamenari eusteko baimena ematea, nahiz eta gozameduna berriro ezkondu.
4. Gozamena egikaritu ahal izateko, bermea era dadin galdatzea.
5. Epe, baldintza eta zamak ezartzea, edo eskubidearen eskuraketa, egikaritzea eta azkentzea edozein modutan aldaraztea.

4 eta 5. zenbakietan arauturiko kasuetan, beharrezkoak izanen dira ezkontide gozamedunaren adostasuna eta onarpena.

265. legea

Analogia

Edozein pertsonari, alarguntasun- baldintzaren menpe, borondatezko gozamen unibertsala nahiz ondasun zehatzen gaineko gozamena eman bazaio, gozamen horri kapitulu honetako legeak aplikatuko zaizkio, legeok gozamena emateko itun edo xedapenaren aurkakoak ez diren neurrian.

266. legea

Arau subsidiarioak

Kapitulu honek ezartzen ez dituen kontuetan, fideltasun-gozamena hirugarren liburuko IV. tituluaren I. kapituluan gozamenari buruz emandako xedapen orokorren menpe dagoela ulertuko da.

II. KAPITULUA

Senipartea

267. legea

Kontzeptua

Nafarroako senipartea dela bide, nahitaezko jaraunsle bakoitzari forma egokian eratzikitzen zaizkio, ondasun higigarriei dagokienez, bost alokairu «feble» edo «carlin» eta, ondasun higieziniei dagokienez, herri-mendietako erregu bat lur.

Seniparte horrek ez du galdatzeko moduko ondare- edukirik, eta ez du jaraunsle-izaerarik eratzikitzen; senipartearen gainean izendatuak ez du inolako erantzukizunik izanen jarauntsiko zorren gainean, eta ezin izanen du jaraunslearen beraren eskubiderik egikaritu.

268. legea

Legitimarios

En testamento y pactos sucesorios deberán ser instituidos en la legítima foral:

1. Los hijos matrimoniales, los no matrimoniales y los adoptados con adopción plena.
2. En defecto de cualquiera de ellos, sus respectivos descendientes de grado más próximo.

Ley 269

Forma

La institución en la legítima foral podrá hacerse para todos los legitimarios en forma colectiva.

Ley 270

Excepciones

No será necesaria la institución en la legítima foral cuando el disponente hubiera dotado a los legitimarios, les hubiese atribuido cualquier liberalidad a título mortis causa, o los hubiere desheredado por justa causa, o ellos hubieran renunciado a la herencia de aquél o hubiesen premuerto sin dejar descendencia con derecho a legítima.

Serán justas causas de desheredación las comprendidas en los artículos 852 y 853 del Código Civil.

Ley 271

Preterición

La preterición tiene por efecto la nulidad de la institución de heredero, pero deja a salvo las demás disposiciones.

Únicamente podrán ejercitar la acción de impugnación el legitimarlo preterido o sus herederos.

CAPÍTULO III

De los derechos de los hijos de anterior matrimonio

Ley 272

Limitación de disposiciones

Los hijos de anterior matrimonio no deberán recibir de sus padres menos que el más favorecido de los hijos o cónyuge de ulterior matrimonio.

Si los hijos de cualquier matrimonio premurieran se dará en todo caso el derecho de representación en favor de sus respectivos descendientes.

Si recibieren menos, el defecto se corregirá igualando a los perjudicados con cargo a los beneficiarios, sin alterar las participaciones de los demás.

Sólo podrán ejercitar la acción de inoficiosidad los hijos o descendientes perjudicados o sus causahabientes y habrán de interponerla dentro de los cuatro años siguientes a contar del fallecimiento

Senipartedunak

Testamentuaren bidez eta oinordetza- itunen bidez, foru-senipartearen gain izendatu behar dira:

1. Ezkontzako seme-alabak, ezkontzaz kanpokoak eta adopzio osoan hartutakoak.
2. Halakorik izan ezean, horien gradurik hurbileneko ondorengoak.

269. legea

Forma

Foru-senipartearen gaineko izendapena senipartedun guztientzat egin daiteke modu kolektiboan.

270. legea

Salbuespenak

Ez da beharrezkoa foru-senipartearen gaineko izendapenik egitea, xedatzaileak senipartedunei zuzkidura eman dienean, mortis causa tituluaren bidez edozein eskuzabaltasun eratziki dienean, arrazoi zuzena dela-eta horiek jaraunsgabetu dituzenean, senipartedunok haren jarauntsiari uko egin diotenean, edota horiekaurrez hil direnean seniparte-eskubidedun ondorengorik utzi gabe.

Serán justas causas de desheredación las comprendidas en los artículos 852 y 853 del Código Civil.

271. legea

Preterizioa

Preterizioak ondore gisa dakar jaraunslizendapenaren deuseztasuna; baina preterizio horrek ez die kalterik egiten gainerako xedapenei.

Aurreko lerrokadan xedaturikoa gorabehera, erosteko aukera-eskubidea eranskin gisa erutzen bada, errentamenduari, azalerari, hipotekari edo Jabetza Erregistroan inskriba daitezkeen eskubide errealetatik beste edozeini begira, haren iraupenak horien epe osoa hartu ahal izanen du, bai eta borondatezko luzapenak ere, esanbidezkoak nahiz isilbidezkoak.

Erosteko aukera egikaritu beharko da, finkatutako prezioa edo hori zehazteko prozesuan ezarritakoa ordainduz eta, hala behar denean, egonkortasunklausulekin bat etorri, halakoak izanez

hubieren previsto.

Los actos de disposición por el dueño de la cosa objeto de la opción no perjudicarán este derecho, que subsistirá hasta el vencimiento del plazo.

Ley 462

Tanteo y retracto

El derecho de tanteo implica también el de retracto si la notificación no se hubiere practicado en forma o si la transmisión se realizase en condiciones distintas a las notificadas.

Estos derechos pueden constituirse bien por tiempo determinado, bien por tiempo indefinido o «para perpetuo».

Si no se dispone otra cosa, sólo podrán ejercitarse respecto a la primera enajenación que se realice de los bienes sujetos a ellos.

A falta de determinación de plazo para el ejercicio del tanteo o retracto, se entenderá que caducan a los treinta días, contados desde el siguiente al de la notificación, o, en su caso, al de conocimiento de la enajenación.

TÍTULO VII

DE LAS GARANTÍAS REALES

CAPÍTULO I

Principios generales

Ley 463

Garantías

El cumplimiento de una obligación, o los efectos de su incumplimiento, podrán asegurarse con fiducia, arras, prenda, hipoteca, anticresis, derecho de retención, depósito de garantía, pacto de retracto, reserva de dominio, condición resolutoria, prohibición de disponer u otras cualesquiera formas de garantía real o personal.

Ley 464

Régimen

Respecto a la hipoteca mobiliaria o inmobiliaria y a la prenda sin desplazamiento, se estará a lo dispuesto en la legislación especial respectiva.

La fianza se someterá a las leyes 525 a 531.

En cuanto a las otras formas de garantía se observará lo dispuesto en el presente título.

Ley 465

Fundamento

La obligación de constituir garantía real puede fundarse en una estipulación, en un contrato, en una disposición mortis causa o en la ley.

gero.

Aukera-eskubidea gauzaren gainekoa bada eta gauza horren jabeak xedapen- egintzak burutzen baditu, egintza horiek ez diote aukera-eskubideari kalterik egingen; eskubideak indarrean iraunen du, harik eta epea mugaeguneratu arte.

462. legea

Eroslehentasun eta atzera-eskuratzea

Eroslehentasun-eskubideak berarekin dakar atzera-eskuratze eskubidea ere, baldin eta jakinarazpena ez bada forma egokian gauzatu edo eskualdaketa jakinarazitakoez bestelako baldintzetan egin bada.

Eskubide horiek era daitezke epe jakin baterako, eperik gabe edo «betiko».

Bestelakoa xedatzen ez bada, eskubideok egikaritu ahal izanen dira horien mendeko ondasunak lehenengoz besterentzen direnean bakarrik.

Ez bada eroslehentasun-eskubidea edo atzera-eskuratzea egikaritzeko eperik zehaztu, ulertuko da horiek hogeita hamar egunean iraungitzen direla, jakinarazpena zein egunetan egin, edo, bestela, besterentzearen berri zein egunetan izan, eta biharamunetik zenbatuta.

VII. TITULUA

BERME ERREALAK

I. KAPITULUA

Printzipio orokorrak

463. legea

Bermeak

Betebeharraren betetzea ziurtatzeko edo horren ez-betetzearen ondoreak ziurtatzeko, hauek erabili ahal izanen dira: fiducia, erresak, bahia, hipoteka, antikresia, atxikitze eskubidea, berme gisa egindako gordailua, atzera-eskuratze ituna, jabari-erreserba, baldintza suntsiarazlea, xedatzeko debekua edo berme erreal nahiz pertsonaletatik beste edozein.

464. legea

Araubidea

Ondasun higigarri edo higiezinen gaineko hipotekari eta edukitzaren lekualdaketarik gabeko bahiari dagokienez, kasuan kasuko legeria berezian xedaturikoa beteko da.

Fidantza 525. legetik 531. erakoan menpe jarriko da.

Bestelako berme-motei buruz, titulu honetan xedaturikoa beteko da.

465. legea

Oinarria

Berme erreala eratzeko betebeharraren oinarri izan daiteke hizpaketa, kontratua, mortis causa xedapena edota legea bera.

CAPÍTULO II

De las garantías fiduciaria y por arras

Ley 466

Fiducia

Por la fiducia de garantía se transmite al acreedor la propiedad de una cosa o la titularidad de un derecho mediante una forma eficaz frente a terceros.

Cumplida la obligación garantizada, el transmitente podrá exigir del fiduciario la retransmisión de la propiedad o del derecho cedido; el fiduciario, en su caso, deberá restituir y responder con arreglo a lo establecido para el acreedor pignoraticio en la ley 470.

No obstante, si así se hubiere pactado, podrá el acreedor, en caso de mora del deudor, adquirir irrevocablemente la propiedad de la cosa o la titularidad del derecho, y quedará extinguida la obligación garantizada.

Ley 467

Arras

a) Pacto como penitenciales

Si en un contrato intervienen arras o señal, sólo cuando expresamente se estableciere podrán una o cualquiera de las partes, según lo convenido, resolver el contrato sin más consecuencia que la pérdida de las arras entregadas o la obligación de devolver dobladas las recibidas.

b) Presunción de confirmatorias

En defecto de dicho pacto, si una de las partes incumpliere su obligación, podrá la otra optar entre exigir el cumplimiento y eventual indemnización o resolver el contrato conforme a lo dispuesto en el párrafo anterior.

Si exigiere el cumplimiento del contrato, las arras se imputarán al precio o, en su caso, a la indemnización.

CAPÍTULO III

De la prenda con desplazamiento, hipoteca, anticresis, derecho de retención y depósito en garantía

Ley 468

Prenda

a) Constitución

La prenda se constituye por entrega de la posesión de la cosa mueble o inmueble.

Ley 469

b) Derecho de venta

Incumplida la obligación previo requerimiento fehaciente de pago, puede el acreedor pignoraticio

II. KAPITULUA

Berme fiduziariora eta erresen bermea

466. legea

Fiduzia

Berme-fiduzia dela bide, hirugarrenengan eragina duen formaren bitartez, hartzekodunari eskualdatzen zaio gauza baten jabetza edo eskubide baten titulartasuna.

Betebehar bermatua bete ondoren, eskualdatzaileak fiduziarioari galda diezaioke lagatako jabetza edo eskubidea berriro eskualdatzeko; fiduziarioak, hala denean, itzulketa-betebeharra eta erantzukizuna ditu, 470. legeak hartzekodun pignoratizioari buruz ezarritakoaren arabera.

Dena den, hala ituntzen bada, eta zorduna berandutza-egoeran jarriz gero, hartzekodunak modu ezeztazinean eskuratu ahal izanen du gauzaren jabetza edo eskubidearen titulartasuna, eta bermatutako betebeharra azkenduko da.

467. legea

Erresak

a) Zigor gisa itundutakoak

Kontratuan erresak edo seinalea eman badira, eta esanbidez hala ezarri denean, orduan bakarrik, alderdietatik edozeinek, hitzartutakoaren arabera, kontratua suntsiarazi ahal izanen du, eta horren ondorio bakarra izanen da emandako erresak galtzea edo jasotakoak bikoiztuta itzultzeko betebeharra izatea.

b) Erresak baiesleak direlako presuntzioa

Halako itunik izan ezean, alderdi batek berari dagokion betebeharra betetzen ez badu, besteak aukeran du, edo kontratua bete dadin eta kasuan kasuko kalte-ordaina eskura dezan galdatzea, edo, bestela, kontratua suntsiaraztea, aurreko lerrokadan xedatutakoarekin bat etorritz.

Kontratuaren betetzea galdatzen badu, erresak prezioari egotziko zaizkio edo, hala denean, kalte-ordainari.

III. KAPITULUA

Edukitzaren lekualdaketa bahia, hipoteka, antikresia, atxikitzeko eskubidea eta berme gisa egindako gordailua

468. legea

Bahia

a) Eraketa

Bahia eratzen da gauza higigarri edo higiezinaren edukitza emanez.

469. legea

b) Saltzeko eskubidea

Ordaintzeko agindei sinesgarria egin eta gero, betebeharraren ez-betetzea gertatzen bada,

vender la cosa pignorada en subasta judicial o en subasta extrajudicial, con intervención de Notario o, en su caso, mediante Agente de Cambio y Bolsa o Corredor de Comercio.

Puede pactarse otra forma de venta, siempre que la naturaleza del objeto lo permita, pero es nulo el pacto por el que se atribuya al acreedor la propiedad de la cosa por falta de pago.

No podrá el acreedor disponer de otro modo ni usar la cosa sin autorización del pignorante, salvo la percepción de los frutos conforme a la ley 471.

Ley 470

c) Responsabilidad

El acreedor, salvo pacto en contrario, responderá del hurto, pero no del robo ni de otro caso fortuito.

d) Restitución

El acreedor deberá restituir la cosa en el mismo estado en que la recibió y justificar, en su caso, la imputación de los frutos percibidos.

Ley 471

Pacto anticrético

Tanto en la prenda como en la hipoteca, se puede pactar la anticresis o compensación del uso de la cosa o de sus frutos con los intereses devengados por la deuda.

En otro caso, si la cosa en posesión del acreedor produce frutos, deberá percibirlos aquél para imputarlos a la deuda de intereses y después a la del capital.

Anticresis

También se puede pactar, sin constituir prenda o hipoteca, la compensación de una deuda dineraria con el uso o disfrute de una cosa mueble o inmueble.

Inscripción

Estos pactos anticréticos serán inscribibles, según su objeto, en el Registro de la Propiedad u otros Registros.

Ley 472

«Pignus Gordianum»

Extinguida la prenda por el cumplimiento de la obligación garantizada, el acreedor podrá retener la posesión de la cosa que le fue pignorada en garantía del cumplimiento de otra deuda del mismo deudor.

Ley 473

Retención convencional

Las obligaciones también pueden garantizarse mediante el acuerdo de que el acreedor retenga

hartzekodun pignorazioak gauza pignoratua saldu ahal izanen du epaiketazko enkantean, edo, bestela, epaiketatik kanpoko enkantean, dela notarioaren esku-hartzearekin, dela kanbio eta burtsako agentearen edota merkataritzako artekariaren bitartez.

Gauza saltzeko beste forma bat itun daiteke, objektuaren izaerak hala ahalbidetzen duenean; baina deuseza da ordainketa ez egiteagatik gauzaren jabetza hartzekodunari eratzkitzeko ituna.

Hartzekodunak ezin izanen du gauza bestelako moduan xedatu, ezta pignoratzailearen baimenik gabe erabili ere, fruituak eskuratzea izan ezik, 471. legearekin bat etorritz.

470. legea

c) Erantzukizuna

Hartzekodunak, aurkako itunik izan ezean, erantzukizuna izanen du ebasketaren gainean; ez, ordea, lapurretaren edo ezusteko kasuaren gainean.

d) Itzulketak

Hartzekodunak gauza itzuli beharko du, berak eskuratu zuen egoera berean; berak jasotako fruituen egozketa egiaztatu beharko du, hala behar denean.

471. legea

Antikresia-ituna

Bahi edo hipotekaren kasuetan, antikresia itun daiteke eta, horren bitartez, zorraren korrituekin konpentsatu ahal izanen da gauzaren nahiz horren fruituen erabilera.

Bestelako kasuetan, hartzekodunaren edukitzapeko gauzak fruituak ematen baditu, hark eskuratuko ditu fruituok, horiek korrituen zorrari eta, gero, kapitalaren zorrari egozteko.

Antikresia

Era berean, bahi edo hipotekarik eratu gabe, itun daiteke diruzko zorra gauza higigarri edota higiezinaren erabilera edo luperketarekin konpentsatzea.

Inskripzioa

Antikresia-itun horiek inskriba daitezke, euren objektuaren arabera, Jabetza Erregistroan edo bestelako erregistroetan.

472. legea

«Pignus Gordianum»

Bahia azkentzen bada betebeharrak bermatua bete delako, hartzekodunak gauza pignoratuaren edukitza atxiki dezake zordun berberaren beste zor baten betetzea bermatzeko.

473. legea

Hitzarmenezko atxikitzea

Betebeharrak bermatzeko, itun daiteke, orobat, hartzekodunak gauza edo eskubidearen edukitza

hasta el cumplimiento la posesión de una cosa o derecho, sin poder alguno de disposición sobre los mismos.

Este derecho podrá inscribirse cuando la naturaleza del objeto lo permita.

Una vez cumplida la obligación, el acreedor deberá restituir e indemnizar conforme a lo establecido para el acreedor pignoraticio en la ley 470.

Ley 474

Depósito en garantía

Para garantía del cumplimiento de una obligación puede constituirse a favor del acreedor un depósito de dinero u otras cosas fungibles.

El acreedor adquiere la propiedad de las cosas depositadas en su poder con obligación de restituirlas al depositante, si procediere, conforme a lo establecido en el contrato.

Cuando el depósito se haga en poder de un tercero, éste quedará obligado a entregarlo al acreedor o a restituirlo al depositante, según corresponda conforme a lo pactado.

CAPÍTULO IV

De la venta con pacto de retro como garantía

Ley 475

Garantía mediante venta con pacto de retro

El cumplimiento de una obligación dineraria puede garantizarse mediante venta con pacto de retro o a carta de gracia, reservándose el deudor el derecho a retraer la cosa vendida al satisfacer o extinguir la obligación.

Presunción

Régimen

La venta con pacto de retro o a carta de gracia se considerará garantía real no sólo cuando expresamente se estableciese en el título, sino también cuando así resulte del contrato o deba presumirse conforme a la ley 584, y le serán aplicables las disposiciones de este capítulo y de las leyes 578, 579 y 580.

Ley 476

Posesión, disfrute y gastos

En la venta con pacto de retro como garantía se presumirá, salvo pacto en contrario, que el vendedor tiene derecho a la posesión y disfrute de la cosa y está obligado al pago de los gastos, seguros y contribuciones por razón de la misma.

Ley 477

atxikitzea betebeharraren betetzea gertatu arte, baina horien gainean xedatze-ahalmenik izan gabe.

Eskubide hori inskribatu ahal izanen da objektuaren izaerak hala ahalbidetzen duenean.

Behin betebeharra bete eta gero, hartzekodunak itzulketa egin eta kalte-ordaina eman beharko du, 470. legeak hartzekodun pignoratizioari buruz ezarritakoarekin bat etorritz.

474. legea

Berme gisa egindako gordailua

Betebehar baten betetzea bermatzeko, diruaren edo bestelako gauza suntsikorren gordailua era daiteke hartzekodunaren mesederako.

Hartzekodunaren eskuetan gordailatu badira gauzak, hartzekodun horrek gauzen jabetza eskuratzen du, gauzok gordailugileari itzultzeko betebeharpean, hori bidezkoa bada, kontratuan ezarritakoarekin bat etorritz.

Gordailua hirugarren baten eskuetan egiten bada, horrek izanen du gordailua hartzekodunari eman edo gordailugileari itzultzeko betebeharra, itundutakoaren arabera egoki dena aintzat hartuta.

IV. KAPITULUA

Salmentan, berme gisa, atzera-eskuratzeko ituna jasotzea

475. legea

Atzera-eskuratzeko itunarekin egindako salmentaren bitartez, bermea izatea

Diruzko betebeharraren betetzea berme daiteke, salmenta atzera-eskuratzeko itunarekin edo grazia-agiriko itunarekin egiten bada, eta zordunak berarentzat erreserbatzen badu saldutako gauza atzera-eskuratzeko eskubidea betebeharra asebeste edo azkentzen denean.

Presuntzioa

Araubidea

Salmenta atzera-eskuratzeko itunarekin edo grazia-agiriko itunarekin egin bada, itun hori berme errealtzat hartuko da, tituluan esanbidez halakotzat ezarri denean ez ezik, kontratuak hori ondorioztatzen duenean edo 584. legearekin bat etorritz halako presuntzioa dagoenean ere bai; itun horri kapitulu honetako xedapenak aplikatuko zaizkio, bai eta 578, 579 eta 580. legetakoak ere.

476. legea

Edukitzea, luperketa eta gastuak

Salmenta atzera-eskuratzeko itunaren bermearekin egin bada, eta aurkako itunik izan ezean, uste izanen da saltzaileak gauza eduki eta lupertzeko eskubidea duela; saltzaileak betebeharra du haren ondoriozko gastu, aseguru eta kontribuzioak ordaintzeko.

477. legea

Consumación

El simple transcurso del plazo de la obligación garantizada no hará firme la adquisición de propiedad por el acreedor, sino que ésta sólo tendrá lugar una vez cumplido el término de un mes y un día, o el plazo mayor previsto en el contrato, a contar del requerimiento fehaciente que el acreedor hiciere al deudor para exigir el cumplimiento de la obligación.

El documento fehaciente justificativo del requerimiento y del transcurso del plazo será título bastante para la práctica del oportuno asiento en el Registro de la Propiedad.

Lo previsto en esta ley se observará aunque nada se hubiese establecido en el contrato o se hubiese pactado lo contrario.

Quedarán siempre a salvo cualesquiera pactos más favorables para el deudor.

Ley 478

Exclusión de lesión enorme

La adquisición firme conforme a la ley anterior no podrá ser rescindida a causa de lesión en el precio.

Ley 479

Frutos

Consumada la adquisición de la propiedad por el acreedor, se aplicará para la distribución de los frutos lo establecido en las leyes 353 y 354.

Ley 480

Prescripción

Si no se hubiera pactado otro plazo, la acción de retraer prescribirá a los treinta días.

CAPÍTULO V

De las prohibiciones de disponer

Ley 481

En actos a título lucrativo

La prohibición de disponer establecida en actos a título lucrativo, inter vivos o mortis causa, a favor de personas determinadas o determinables dentro de los límites del párrafo segundo de la ley 224, tiene siempre eficacia real y será inscribible en el Registro.

Ley 482

En actos a título oneroso

La prohibición de disponer establecida en actos a título oneroso tiene eficacia obligacional por el plazo máximo de diez años, siempre que se haga a favor de personas actualmente determinadas.

Esta prohibición es inscribible, siempre que para ello

Gauzatzea

Betebehar bermatuaren epea igarotze hutsak ez dakar hartzekodunak jabetza behin betiko eskuratzea; aitzitik, hori gertatuko da hilabete eta egun bateko epea edo kontratuan ezarritako epe luzeagoa igarotzen denean bakarrik, eta horren zenbaketa hasiko da hartzekodunak zordunari betebeharraren betetzea galdatzeko agindei sinesgarria egin dionetik.

Agiri sinesgarriak egiaztatzen badu agindeia egin eta epea igaro dela, agiri hori behar adinako titulua da, Jabetza Erregistroan idazkun egokia egiteko.

Lege honetan araututakoa beteko da, nahiz eta kontratuan ezer ezarri ez edo aurkakoa itundu.

Kalterik gabe geratuko dira beti zordunarentzat onuragarriagoak diren itunak.

478. legea

Kalte larria baztertzea

Aurreko legearekin bat etorritz eskuraketa irmoa gauzatzen bada, eskuraketa hori ezin izanen da hutsaldako prezioak izandako kaltearen ondorioz.

479. legea

Fruituak

Behin hartzekodunak jabetza eskuratu eta gero, 353 eta 354. legeetan ezarritakoa aplikatuko zaio fruituen banaketari.

480. legea

Preskripzioa

Bestelako epea itundu ez bada, atzera- eskuratzeko akzioaren preskripzioepea hogeita hamar egunekoak izanen da.

V. KAPITULUA

Xedatzeko debekuak

481. legea

Dohaineko egintzetan

Xedatzeko debekua ezarri bada, inter vivos nahiz mortis causa erako dohaineko egintzetan, pertsona jakinen mesederako, edo, bestela, 224. legearen bigarren lerrokadako mugen barruan zehazteko moduko pertsonen mesederako, debeku horrek eragingarritasun erreala izanen du, eta erregistroan inskribatu ahal izanen da.

482. legea

Kostu bidezko egintzetan

Xedatzeko debekua kostu bidezko egintzetan ezarri bada, debeku horrek betebehar-izaerako eragingarritasuna du hamar urteko gehieneko epean, betiere, une honetan zehaztuta dauden pertsonen mesederako egiten denean.

Debeku hori inskribatzeko modukoa da, horretarako

exista convenio expreso, y una vez inscrita en el Registro tendrá eficacia real durante el plazo máximo de cuatro años.

CAPÍTULO VI

De la venta con pacto de reserva de dominio

Ley 483

Concepto

Efectos

Por el pacto de reserva de dominio el vendedor conserva la propiedad de la cosa vendida hasta que el precio sea pagado por completo, y podrá ejercitar las tercerías de dominio y demás acciones en defensa de su derecho.

El contrato queda perfeccionado desde su celebración, pero el efecto de transmisión de la cosa quedará diferido hasta el pago total.

Mientras tanto, corresponde al comprador la posesión y disfrute de la cosa vendida, con las limitaciones pactadas en su caso, así como estarán a su cargo el riesgo y todos los gastos inherentes a aquélla; el vendedor, por su parte, queda obligado a no disponer de la cosa.

Inscrita la venta en el Registro de la Propiedad u otro Registro, todo acto de disposición de la cosa por parte del vendedor será sin perjuicio del derecho del comprador.

En caso de embargo de bienes, concurso o quiebra del vendedor, quedará a salvo el derecho del comprador para adquirir la propiedad mediante pago íntegro del precio en los plazos convenidos.

Ley 484

Resolución

La falta de pago por el comprador de cualquiera de los plazos del precio facultará al vendedor para resolver el contrato, pero la resolución sólo tendrá lugar una vez cumplido el término de un mes y un día, o el plazo mayor que se haya pactado, a contar del requerimiento fehaciente que el vendedor hiciere al comprador exigiendo el cumplimiento de la obligación.

En caso de resolución, el vendedor recobrará la libre disposición de la cosa y deberá restituir las cantidades percibidas, con derecho a retener o reclamar la compensación por el uso de la cosa y daños y perjuicios ocasionados conforme a lo pactado o, en defecto de pacto, la correspondiente indemnización.

Ley 485

Cesión

Si no se hubiere pactado otra cosa, la cesión inter

esanbidezko hitzarmena badago; behin erregistroan inskribatutakoan, debekuak eragingarritasun erreala izanen du, lau urteko gehieneko epean.

VI. KAPITULUA

Salmenta egitea, jabaria erreserbatzeko itunarekin

483. legea

Kontzeptua

Ondoreak

Jabaria erreserbatzeko itunaren bidez, saltzaileak eusten dio berak saldutako gauzaren jabetzari, prezioa oso-osorik kobratu arte, eta egikaritu ahal izanen ditu, bai jabari-hirugarrengoa, bai eta bere eskubidea defendatzeko gainerako akzioak ere.

Kontratua burututa egonen da, hori egiten denetik, baina gauzaren eskualdaketa geroratuta geratuko da, ordainketa oso-osorik egin arte.

Bien bitartean, erosleari dagozkio saldutako gauzaren edukitza eta luperketa, itundutako mugapenen menpe, halakorik itundu bada bederen, eta haren ardurapekoak izanen dira gauzari datxezkion arrisku eta gastu guztiak; saltzaileak, bestalde, gauza ez xedatzeko betebeharrak izanen du.

Salmenta Jabetza Erregistroan edo bestelako erregistroan inskribatu eta gero, saltzaileak gauza xedatzeko egintzetatik edozein burutzen badu, egintza horrek ez dio kalterik eginen eroslearen eskubideari.

Ondasunak enbargatzen direnean, edo saltzailearen inguruan konkurtso edo porrota gertatzen denean, erosleak jabetza eskuratzeko eskubidea izanen du prezioa hitzarturiko epeetan oso-osorik ordainduz.

484. legea

Suntsiarazpena

Erosleak ez badu prezioaren epeetarik edozein ordaintzen, ordainketa ezak saltzaileari ahalmena emanen dio kontratua suntsiarazteko; baina suntsiarazpena gertatuko da hilabete eta egun bateko epea igaro ondoren edo, bestela, itundutako epe luzeagoa igarotakoan, saltzaileak erosleari betebeharraren betetzea galdatzeko agindei sinesgarria egiten dionetik zenbatuta.

Suntsiarazpena gertatzean, saltzaileak gauzaren gaineko xedapen askea berreskuratuko du, eta berak jasotako kopuruak itzuli beharko ditu; era berean, eskubidea izanen du, gauzaren erabileraren eta eragindako kalte-galeren konpentsazioa itundutakoarekin bat etorri atxiki edo erreklamatzeko, edo, itunik izan ezean, kalte-ordain egokia eskatzeko.

485. legea

Lagapena

Bestelakorik itundu ezean, erosleak bere eskubidea

vivos que el comprador haga de su derecho no afectará al vendedor si éste no la consintiere.

Ejecución

Los acreedores del comprador no pueden ejercitar por subrogación el derecho de adquirir la cosa, sino que habrán de proceder judicialmente para cobrar sus créditos con cargo a aquel derecho.

CAPÍTULO VII

De la venta con pacto comisorio

Ley 486

Concepto

En la compraventa con precio aplazado total o parcialmente, puede establecerse el pacto comisorio por el cual la falta de pago de todo o parte del precio en el tiempo convenido facultará al vendedor para ejercitar de pleno derecho la resolución del contrato, que sólo tendrá lugar una vez cumplido el término de un mes y un día o el plazo mayor que se haya pactado, a contar del requerimiento fehaciente que el vendedor hiciera al comprador exigiendo el cumplimiento de la obligación.

El vendedor podrá optar entre la resolución o el cumplimiento del contrato mediante la percepción del precio aplazado.

Ley 487

Resolución

En caso de resolución, una vez notificada, la cosa se tendrá por no vendida y quedarán sin efecto los actos de enajenación y gravamen, así como todos los arrendamientos concertados por el comprador.

TÍTULO VIII

DE LAS OBLIGACIONES EN GENERAL

CAPÍTULO I

De las fuentes y efectos de las obligaciones

Ley 488

Fuentes

Las obligaciones pueden establecerse por convenio, donación, disposición mortis causa o sobre régimen de bienes en el matrimonio o por disposición de la ley.

Quien por su negligencia cause daño en patrimonio ajeno deberá indemnizarlo según las circunstancias de cada caso.

La acción para exigir la indemnización prescribe al año.

Ley 489

Nulidad, anulabilidad y rescindibilidad

Las obligaciones serán nulas, anulables o rescindibles conforme a lo dispuesto en la ley 19.

inter vivos laga badu eta saltzaileak ez badu adostasunik eman, lagapen horrek ez du saltzailearengan eraginik izanen.

Betearazpena

Eroslearen hartzekodunek ezin dute subrogazio bidez egikaritu gauza eskuratzeko eskubidea; aitzitik, epaiketa bidez jardun beharko dute, eskubide horren kontura euren kredituak kobratzeko.

VII. KAPITULUA

Komiso-itunarekin egindako salmenta

486. legea

Kontzeptua

Salmentaren prezioa osorik edo zati batez geroratzen bada, komiso-ituna ezar daiteke, eta, horren bidez, hitzarturiko epean prezio osoa edo horren zati bat ez ordaintzeak saltzaileari ahalmena emanen dio kontratuaren suntsiarazpena zuzenbide osoz gauzatzeko; suntsiarazpen hori gertatuko da, hilabete eta egun bateko epea edo itundutako epe luzeagoa betetzen denean bakarrik, saltzaileak erosleari betebeharraren betetzea galdatzeko agindei sinesgarria egiten dionetik zenbatuta.

Saltzaileak aukeran du kontratua suntsiarazi edo, prezio geroratua jasoz, kontratuaren betetzea eskatu.

487. legea

Suntsiarazpena

Suntsiarazpenaren kasuan, behin hori jakinarazi eta gero, gauza saldugabekotzat joko da, eta ondorenik gabe geratuko dira gauza besterendu eta kargatzeko egintzak, bai eta erosleak hitzarturiko errentamenduak ere.

VIII. TITULUA

BETEBEHARRAK OROKORREAN

I. KAPITULUA

Betebeharren iturriak eta ondoreak

488. legea

Iturriak

Betebeharrak ezar daitezke hitzarmenaren bidez, dohaintzaren bidez, mortis causa xedapenen bidez nahiz ezkontzako ondasun-eraentzaren gaineko xedapenen bidez, edo lege-aginduz.

Norbaitek zabarkeriaz kalteak eragiten baditu inoren ondarean, kalte-ordaina eman beharko dio kaltetunari kasuan kasuko inguruabarren arabera.

Kalte-ordaina galdatzeko akzioa urtebete igarotakoan preskribatzen da.

489. legea

Deuseztasun, deuseztakortasun eta hutsalkortasuna

Betebeharrak deusez, deuseztakor edo hutsalkorrik izanen dira, 19. legean xedaturikoarekin bat etorritz.

Ley 490

Interpretación

Las obligaciones deberán interpretarse conforme a la voluntad declarada que las creó, al uso y a la buena fe.

Salvo pacto en contrario, el obligado a una prestación deberá cumplir a su costa las formalidades de titulación, como reanudación del tracto en los Registros u oficinas públicas, entrega de documentos y demás actos para el pleno cumplimiento de la obligación y la cancelación registral de cargas y limitaciones extinguidas.

Los pactos se presumirán en favor del deudor, salvo que esta presunción resulte contraria a la naturaleza o circunstancias del acto.

Ley 491

Intereses moratorios

Todas las deudas dinerarias, aun cuando no mediare estipulación de intereses, devengarán los legales desde el vencimiento de la obligación.

Ley 492

Presunción de divisibilidad

Salvo que la ley o el pacto declaren que varios acreedores o deudores que intervienen en la obligación lo son solidariamente, o así resulte de la naturaleza o circunstancias de la misma, se considerará que lo son por partes divididas, tanto activa como pasivamente.

Obligaciones individuales

Si la prestación es en sí misma indivisible, la reclamación deberá hacerse conjuntamente, pero la insolvencia de un deudor no perjudicará a los demás.

CAPÍTULO II

Del cumplimiento y extinción de las obligaciones

Ley 493

Cumplimiento de la obligación

Las obligaciones se extinguen al quedar cumplidas.

También se extinguen al hacerse imposible su cumplimiento por causa extraña al deudor y sin su culpa; en todo otro caso, el deudor deberá indemnizar por su incumplimiento.

Aunque la obligación sea divisible, el acreedor podrá rechazar una oferta de cumplimiento incompleto o de objeto distinto del debido.

Sin embargo, puede compelerse al acreedor a que acepte el pago parcial de una cantidad cuando el deudor garantice el pago de la cantidad restante.

490. legea

Interpretazioa

Betebeharrak interpretatu beharko dira horiek eratzeko aitortu den borondatearekin, usadioarekin eta onustearekin bat etorritz.

Aurkako itunik izan ezean, prestazioa gauzatzeko betebeharra duenak bere kontura bete beharko ditu titulazioaren formalitate guztiak; esaterako, erregistro eta bulego publikoetan traktua berriro hastea, agiriak ematea eta betebeharra oso-osorik betetzeko egintzetatik beste edozein gauzatzea, bai eta zama nahiz mugapen azkenduei buruzko inskripzioak ezereztea ere.

Itunak zordunaren mesederako egin direla uste izanen da, salbu eta presuntzio hori egintzaren izaeraren edo inguruabarren aurkakoa denean.

491. legea

Berandutza-korrituak

Diruzko zor guztiak, korrituei buruzko hizpaketarik izan ez arren, legezko korrituak sortzen dituzte betebeharra mugaeguneratzen denetik.

492. legea

Zatigarritasunari buruzko presuntzioa

Legeak edo itunak halakoa adierazten ez badu, hau da, betebeharrean esku hartzen duten zordun edo hartzekodunak solidarioak direla, edo betebeharraren izaerak nahiz inguruabarrek hori bera ondorioztatzen ez badute, ulertuko da, modu aktibo nahiz pasiboan, bakoitzari dagokion heinean direla zordun edo hartzekodun.

Banakako betebeharrak

Prestazioa berez zatiezina bada, erreklamazioa modu baterakoan egin beharko da, baina zordun baten kaudimengabeziak ez die gainerako zordunei kalterik egingen.

II. KAPITULUA

Betebeharrak betetzea eta azkentzea

493. legea

Betebeharra betetzea

Betebeharrak azkentzen dira betetzen direnean.

Era berean, azkentzen dira, zordunarekin zerikusirik ez duen arrazoiaren ondorioz eta haren eruririk gabe, betebeharrak betetzea ezinezko suertatzen denean; beste edozein kasutan, zordunak kalte-ordaina eman beharko du bere ez-betetzea gertatuz gero.

Betebeharra zatigarria izan arren, hartzekodunak ezezkoa eman diezaioke betetze osatugabea egiteko edo zor den objektuaz bestelakoa emateko eskaintzari.

Hala ere, hartzekoduna behartu daiteke kopuru baten ordainketa partziala onartzera, baldin eta zordunak gainerako kopuruaren ordainketa bermatzen badu.

Asimismo, el acreedor de cantidad de dinero tendrá que aceptar un objeto distinto si el Juez estima justa la sustitución por haberse hecho excesivamente gravosa la prestación debida.

Cuando se trate de obligaciones de largo plazo o tracto sucesivo, y durante el tiempo de cumplimiento se altere fundamental y gravemente el contenido económico de la obligación o la proporcionalidad entre las prestaciones, por haber sobrevenido circunstancias imprevistas que hagan extraordinariamente oneroso el cumplimiento para una de las partes, podrá ésta solicitar la revisión judicial para se modifique la obligación en términos de equidad o se declare su resolución.

Ley 494

Reconocimiento de pago

Quien ha reconocido en un documento el cobro de una cantidad no podrá exigir la prueba de pago efectivo de la misma, pero podrá impugnar el documento probando la inexistencia de dicho pago.

Ley 495

Dación en pago

Cuando el acreedor acepte la dación en pago de un objeto distinto del debido, la obligación se considerará extinguida tan sólo desde el momento en que el acreedor adquiera la propiedad de la cosa subrogada, pero las garantías de la obligación, salvo que sean expresamente mantenidas, quedarán extinguidas desde el momento de la aceptación.

Dación para pago

La dación para pago sólo libera al deudor por el importe líquido de los bienes cedidos.

Ley 496

Pago por consignación

Si el acreedor se niega injustamente a aceptar el pago de la cantidad o de la cosa mueble debida, el deudor quedará libre de responsabilidad mediante la consignación judicial.

Si se tratara de cosa inmueble, podrá asimismo liberarse de responsabilidad poniéndola a disposición del Juez.

Ley 497

Pago por terceros

Cuando, por su naturaleza o por pacto, la obligación no requiera un cumplimiento personal del deudor, podrá ser cumplida por un tercero, incluso sin conocimiento del deudor.

El tercero que hubiere pagado con conocimiento y sin oposición por parte del deudor, así como el que lo

Era berean, diru-kopuruaren hartzekodunak diruaz bestelako objektua onartu beharko du, epailearen ustez ordezipena zuzena bada zor den prestazioak karga handiegia ekartzeagatik.

Epe luzerako betebeharretan edo segidako traktudunetan, betetze-epean zehar goitik behera eta modu larrian aldatzen bada betebeharraren eduki ekonomikoa edo prestazioen arteko proportzionaltasuna, ustekabeko inguruabarrak gertatu direlako eta inguruabar horiek karga handiegia dakartelako alderdietako batek betebeharrak bete ditzan, alderdi horrek epaileari eskatu ahal izanen dio betebeharra ekitatez berrikusteko, eta hori aldarazteko edo horren suntsiarazpena adierazteko.

494. legea

Ordainketari buruzko aitortpena

Norbaitek agiri bidez aitortzen badu kopuru bat kobratu duela, ezin izanen du galdatu horren ordainketa eragingarriari buruzko frogarik, baina agiria aurkaratu ahal izanen du halako ordainketa egin ez dela frogatuz.

495. legea

Ordainean ematea

Hartzekodunak onartzen badu zor den objektuaz besteko gauza ordainean ematea, betebeharra azkendutzat joko da hartzekodun horrek gauza subrogatuaren jabetza eskuratzen duenetik; baina betebeharraren bermeak onarpena eman denetik azkenduko dira, horiei esanbidez eutsi zaienean salbu.

Ordaintzeko ematea

Ordaintzeko emateak zorduna askatzen du, baina lagatako ondasunen zenbateko likidoaren neurrian bakarrik.

496. legea

Ordainketa, epailearen zainpean jarrita

Hartzekodunak bidegabe ezezkoa ematen badio berari zor zaion kopuruaren edo gauza higigarriaren ordainketa onartzeari, zorduna erantzukizunetik aske geratuko da, kopuru edo gauza hori epailearen zainpean jarritz.

Gauza higiezina bada, zorduna erantzukizunetik askatuko da gauza hori epailearen eskura jarritz.

497. legea

Hirugarrenek egindako ordainketa

Betebeharraren izaeraren ondorioz edo itunaren bidez beharrezkoa ez bada zordunaren betetze personala, betebeharra hirugarren batek bete ahal izanen du, baita zordunak horren berririk ez badu ere.

Hirugarrenak ordainketa egin badu, zorduna horren jakitun izanik eta horren aurka jarri gabe, edo

hubiere hecho por tener interés en el cumplimiento, quedará subrogado en el derecho del acreedor.

En los demás casos sólo podrá repetir del deudor en la medida de la utilidad que a éstos reportó tal pago.

Ley 498

Otros modos de extinción

También se extinguen las obligaciones por novación, por compensación, por confusión de la titularidad del deudor y la del acreedor, y por condonación de la deuda.

CAPÍTULO III

De la rescisión por lesión

Ley 499

Concepto

Quien haya sufrido lesión enorme, a causa de un contrato oneroso que hubiere aceptado por apremiante necesidad o inexperiencia, podrá pedir la rescisión del mismo.

Se entenderá por lesión enorme el perjuicio de más de la mitad del valor de la prestación, estimada al tiempo del contrato.

Si el perjuicio excediere de los dos tercios de aquel valor, la lesión se entenderá enormísima.

Ley 500

Sujeto

Siendo navarros todos los contratantes, procederá la rescisión por lesión sea cual fuere el lugar en que se hallare el objeto y el del otorgamiento del contrato.

Siendo navarro tan sólo alguno de los contratantes, procederá la rescisión cuando el contrato deba someterse a la ley navarra.

En ningún caso podrá pedir la rescisión por lesión quien, profesional o habitualmente, se dedique al tráfico de las cosas objeto del contrato o fuere perito en ellas.

Ley 501

Objeto

La rescisión se dará no sólo en los contratos sobre bienes inmuebles, sino también sobre los muebles cuando se estime justificada la acción en consideración al valor de los mismos y al perjuicio causado por el contrato en relación al patrimonio.

Ley 502

Contrato sobre varias cosas conjuntamente

El contrato sobre varias cosas conjuntamente por un sólo precio podrá rescindirise por lesión en su

ordainketa egin badu betetze horretan interesa izan duelako, hirugarren hori subrogatuko da hartzekodunaren eskubidean.

Gainerako kasuetan, berreskaera- eskubidea erabili ahal izanen du zordunaren aurka, ordainketaren ondorioz horrek izan duen onura erreklamatzeko bakarrik.

498. legea

Az kentzeko beste modu batzuk

Betebeharrak az kentzen dira, berebat, aldaberriketa edo konpentsazioa gertatzen denean, zordunaren eta hartzekodunaren titulartasunak bateratzen direnean, eta zorra barkatzen denean.

III. KAPITULUA

Kaltearen ondoriozko hutsalketa

499. legea

Kontzeptua

Norbaitek kalte larria jasan badu premiazko beharrezanean edo esperientziarik ezarengatik kostu bidezko kontratua onartu duelako, horren hutsalketa eskatu ahal izanen du.

Kalte larritzat hartuko da prestazioak duen balioaren erdia baino zati handiagoari eragindakoa; prestazioa kontratua egiteko unean zenbatetsiko da.

Kalteak balio horren bi herenak gainditzen baditu, hori larri-larria dela ulertuko da.

500. legea

Subjektua

Kontratugile guztiak nafarrak direnean, kaltearen ondoriozko hutsalketa bidezkoa da, objektuaren kokalekua eta kontratua egiteko lekua edozein izanda ere.

Kontratugileetatik bat bakarrik bada nafarra, hutsalketa bidezkoa izanen da kontratua Nafarroako legepean jarri behar denean.

Edozein kasutan ere, ezin du kaltearen ondoriozko hutsalketarik eskatu kontratuaren objektu diren gauzen trafikoan lanbidez nahiz ohikotasunez dabilenak edo gauzon inguruan aditu gisa diharduenak.

501. legea

Objektua

Hutsalketa gertatuko da, ondasun higiezinaren gaineko kontratuetan ez ezik, higigarrien gainekoetan ere, baldin eta akzioa bidezkotzat jotzen bada, gauzon balioa eta kontratuak ondareari begira eragindako kaltea aintzakotzat hartuta.

502. legea

Gauza batzuen gainean baterako moduan egindako kontratua

Gauza batzuen gainean, baterako moduan eta prezio bakarraren truk egiten den kontratua hutsald

totalidad, aunque se especificare separadamente el precio, valor o estimación de cada cosa.

Ley 503

Excepciones

No tendrá lugar la rescisión en los contratos de simple liberalidad, aleatorios o sobre objeto litigioso.

En las ventas efectuadas a carta de gracia o con pacto de retro, sólo se dará la rescisión cuando haya caducado el plazo o se haya extinguido el derecho a retraer.

Cuando no se hubiese fijado plazo, se estará a lo dispuesto en la ley 578.

Ley 504

Acción

La acción rescisoria por lesión es personal y transmisible a los herederos.

No tendrá lugar cuando sean procedentes las acciones de saneamiento por vicios o defectos de la cosa, o la de nulidad del contrato.

La acción rescisoria por lesión prescribirá en los plazos establecidos en la ley 33.

Ley 505

Renuncia

La renuncia a la acción rescisoria, hecha simultánea o posteriormente al contrato a que se refiere, será válida siempre que observe al menos la forma utilizada para tal contrato.

Sin embargo, no será válida la renuncia determinada por apremiante necesidad o por inexperiencia.

Ley 506

Restitución

a) Frutos

Declarada la rescisión, se restituirá la cosa con sus frutos, aplicándose en cuanto a éstos lo establecido en las leyes 353 y 354.

b) Mejoras

No habrá derecho alguno al abono de mejoras, pero el demandado podrá retirarlas cuando puedan separarse sin menoscabo de la cosa a que se hubiesen unido.

c) Complemento del precio

Cuando la restitución no fuese posible porque el demandado no tuviera la cosa en su poder, deberá pagar sólo el complemento del precio, valor o estimación más los intereses legales.

Indemnización

En todo caso, se podrá evitar la rescisión mediante el

ahal izanen da oso-osorik kaltearen ondorioz, nahiz eta gauza bakoitzaren prezio, balio edo zenbatespena modu bananduan zehazturik egon.

503. legea

Salbuespenak

Ez da hutsalketarik gertatuko eskuzabaltasun hutseko kontratueta, ausazkoetan edo objektu auzigaien gainekoetan.

Salmentak atzera-eskuratzekeko itunarekin edo grazia-agiriko itunarekin egin badira, epea iraungi edo atzera-eskuratzekeko eskubidea azkentzen denean, eta orduan bakarrik, gertatuko da salmenten hutsalketa.

Epea finkatu ez denean, 578. legean xedaturikoa beteko da.

504. legea

Akzioa

Kaltearen ondoriozko hutsalketa-akzioa pertsonala da, eta jaraunsleei eskualda dakieke.

Ez da halako akziorik izanen, baldin eta bidezkoak badira gauzaren akats edo hutsen ondoriozko saneamendu-akzioak nahiz kontratuaren deuseztasun-akzioak.

Kaltearen ondoriozko hutsalketa-akzioa 33. legean ezarritako epeetan preskribatuko da.

505. legea

Uko egitea

Hutsalketa-akzioari uko egiten bazaio, kontratuarekin batera edo horren ondoren, uko hori baliozkoa izanen da, kontratua egiteko forma behintzat betetzen badu.

Hala ere, uko egitea ez da baliozkoa izanen, premiako beharizanarengatik edo esperientziarik ezarengatik gauzatzen bada.

506. legea

Itzulketa

a) Fruituak

Behin hutsalketa adierazi eta gero, gauza bere fruituekin batera itzuliko da; horiei dagokienez, 353 eta 354. legeetan ezarritakoa aplikatuko da.

b) Hobekuntzak

Ez da inolako eskubiderik izanen hobekuntzen ordainketa eskatzeko, baina mandatatuak hobekuntzok kendu ahal izanen ditu, euren euskarri den gauzari kalterik egin gabe banan badaitezke.

c) Prezioaren osagarria

Itzulketa ezin bada gauzatu mandatatuak gauza bere esku ez izateagatik, prezio, balio edo zenbatespenaren osagarria bakarrik ordaindu beharko du, legezko korrituekin batera.

Kalte-ordaina

Edozein kasutan, aurreko lerrokadan aipaturiko

© Nafarroako Foru Berriaren itzulpena eta lan honetako aurkibide analitiko guztiak:

Begoña Landa, Gotzon Lobera, Andres Urrutia, Esther Urrutia,

Nafarroako Parlamentuko itzultzaileak eta Nafarroako Gobernuko Itzulpen Ataleko zenbait itzultzaile, eta IVAP/HAEEko Itzultzaile Zerbitzu Ofiziala

© Deustuko Unibertsitatea. Euskal Gaien Institutua

© IVAP/HAEEko Itzultzaile Zerbitzu Ofiziala

abono de la indemnización a que se refiere el párrafo anterior.

Ley 507

Indivisibilidad de la acción

La acción de rescisión es indivisible y deberá ser ejercitada conjuntamente contra todos los obligados y por todos los que tengan derecho a ejercitarla, o por uno cualquiera de éstos respecto a la totalidad.

No habrá lugar a la rescisión cuando todos los obligados estén de acuerdo en indemnizar, y deberán hacerlo en la proporción que a cada uno corresponda.

Cuando sólo uno se disponga a ejercitar la acción, deberá notificarlo previamente a los otros que tengan derecho a la rescisión, para que puedan concurrir al litigio.

Después de haberse ejercitado la acción por uno de ellos, deberá éste hacer partícipe a los otros del resultado favorable de la acción por él ejercida, deducidos los gastos de litigio.

CAPÍTULO IV

Del enriquecimiento sin causa

Ley 508

Clases

El que adquiere o retiene sin causa un lucro recibido de otra persona queda obligado a restituir.

Se entiende por adquisición sin causa la que se ha hecho a consecuencia de un acto ilícito o de un convenio prohibido o que es inmoral para el adquirente, quien queda obligado a restituir lo recibido e indemnizar el perjuicio sufrido sin posible limitación por la pérdida fortuita, a no ser que se trate de un incapaz, en cuyo caso responderá tan sólo del enriquecimiento.

Se entiende que se retiene sin causa cuando se recibió una cosa para realizar una contraprestación que no se ha cumplido o en cobro de una obligación indebida con error por parte del que pagó y del que cobró, o cuando se recibió una cosa por causa inicialmente válida, pero que posteriormente ha dejado de justificar la retención de lo adquirido.

En estos casos, el adquirente está obligado a restituir su enriquecimiento.

Ley 509

Prueba en el pago de lo indebido

El que repite un pago indebido debe probar que lo realizó y la inexistencia de la obligación.

Cuando el que cobró niegue formalmente haber cobrado, una vez que se pruebe el pago, deberá

kalte-ordaina emanaz, hutsalketa saihestu ahal izanen da.

507. legea

Akzioaren zatiezintasuna

Hutsalketa-akzioa zatiezina da, eta modu baterakoan egikaritu beharko dute horretarako eskubidea duten guztiek betebeharreko guztien aurka, edo haietatik edozeinek kontratu osoari begira.

Ez da hutsalketarik gertatuko betebeharreko guztiak kalte-ordaina ematearekin ados daudenean; kalte-ordain hori eman beharko dute bakoitzari dagokion proportzioa errespetatuz.

Batek bakarrik badu akzioa egikaritzeko asmoa, aldez aurretik asmo hori jakinarazi behar die hutsalketarako eskubidea duten gainerakoei, auzian parte hartzeko aukera izan dezaten.

Horietatik batek bakarrik akzioa egikaritu ondoren, gainerakoekin banatu behar du berak egikaritutako akzioaren emaitza onuragarria, auziaren gastuak kenduta.

IV. KAPITULUA

Arrazoirik gabe aberastea

508. legea

Motak

Norbaitek arrazoirik gabe eskuratu edo atxikitzen badu beste pertsona batengandik jasotako irabazia, hori itzultzeko betebeharra du.

Ulertzen da arrazoirik gabeko eskuraketa dela egingiza ez-zilegi, hitzarmen debekatu edo eskuratzaillearentzat moralaren aurkakoa den hitzarmenaren ondorioz gauzaturikoa; eskuratzailleak betebeharra du berak jasotakoa itzultzeko eta eragindako kalteen ordaina emateko, ezusteko galeraren ondoriozko mugapenik egin gabe, salbu eta eskuratzaillea ezgaia denean, halakoetan aberastearen gaineko erantzukizun hutsa baitu.

Ulertzen da arrazoirik gabe atxikitzen dela gauza bat jaso denean kontraprestazio bat gauzatzeko eta hori ez denean gauzatu, edo ordaindu eta kobratu dutenen okerra dela-eta zor ez den betebeharra kobratzeko, eta, berebat, gauza bat jaso denean, jatorrian baliozkoa izan den arrazoiaren ondorioz, baina gero arrazoi horrek ez duenean justifikatzen eskuratutakoaren atxikipena.

